

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA

Ur horniduraren ordenantzak behin betiko onartzea

Urbide Arabako Ur Partzuergoaren Batzar Nagusiak, 2019ko apirilaren 9an eginiko ohiko bilkuran, hornidura zerbitzua emateko ordenantza teknikoaren hasierako onarpena erabaki zuen. Geroago, jendaurreko informazioaren izapidea bete zuen eta aldi horretan aurkeztutako alegazioak aztertu eta erantzun zituen. Hori eginda, Batzar Nagusiak –estatutuen 18. artikulua ezarritako gehiengo kualifikatua dela bide–, ur horniduraren ordenantza teknikoari buruzko behin betiko testua onartu zuen 2019ko ekainaren 27an.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 65.2 artikuluan (70. artikuluan ezartzen denari lotuta) ezarritakoari jarraiki, arestian esandako ordenantzaren testua osorik argitaratu da. Ordenantza hamabost egunean indarrean sartuko da, ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Ribabellosa, Araba, 2019ko uztailaren 8a

Partzuergoko lehendakaria
JOSE ANTONIO GALERA CARRILLO

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOAREN HORNIDURA ZERBITZUARI BURUZKO ORDENANTZA TEKNIKOA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA – XEDEA
2. ARTIKULUA – ERAGIN EREMUA
3. ARTIKULUA – KONTZEPTUEN DEFINIZIOA. IZENDAPENAK
4. ARTIKULUA – ESKUMENEN ARAUBIDEA
5. ARTIKULUA – INDARRALDIA

II. KAPITULUA - UR HORNIDURAREN ZERBITZUAREN EDUKIA

LEHEN ATALA. PARTZUERGOAREN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

6. ARTIKULUA – PRESTAZIOAREN BETEBEHARRAREN EDUKIA
7. ARTIKULUA – PARTZUERGOAREN BETEBEHARRAK
8. ARTIKULUA – PARTZUERGOAREN ESKUBIDEAK
9. ARTIKULUA – ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK
10. ARTIKULUA – ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

BIGARREN ATALA. ZERBITZUAREN PRESTAZIOAREN ERREGULARTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA

11. ARTIKULUA – ZERBITZUAREN PRESTAZIOAREN ERREGULARTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA

12. ARTIKULUA – HORNIDURAREN MURRIZKETAK

HIRUGARREN ATALA. ZERBITZUA EMATEA

13. ARTIKULUA – HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUEN OSAGARRITASUNA

14. ARTIKULUA – ZERBITZUA EMATEKO BETEBEHARREZKOTASUNA

15. ARTIKULUA – ZERBITZUA JASOTZEKO ESKAERA

16. ARTIKULUA – BANAKETA SAREAN ETA/EDO UR HARGUNEAN MANIOBRAK EGITEKO ESKAERA

17. ARTIKULUA – BANAKETA SAREAREN INSTALAZIOEN HORNIDURA ETA HANDITZEAK EDO ALDAKETAK HIRI LURZORUAN

18. ARTIKULUA – HORNIDURA INDUSTRIALDE EDO URBANIZAZIO BERRIETAN

III. KAPITULUA - UR HORNIDURAREN INSTALAZIOAK

LEHEN ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

19. ARTIKULUA – HORNIDURAKO INSTALAZIOEN ZERRENDA

20. ARTIKULUA – HORNIDURAKO INSTALAZIOEN DEFINIZIOA

21. ARTIKULUA – HORNIDURAKO INSTALAZIOAK OINARRIZKO SAREAREN ERABILTZAILLEENTZAT

22. ARTIKULUA – BANAKETA SAREA HANDITZEA EDO ALDATZEA

23. ARTIKULUA – INDUSTRIALDE EDO URBANIZAZIO BERRIETAKO INSTALAZIOAK

BIGARREN ATALA. UR HARGUNEAK

24. ARTIKULUA – UR HARGUNEEN DEFINIZIOA ETA OSAGAIK

25. ARTIKULUA – UR HARGUNEEN EZAUGARRIAK

26. ARTIKULUA – UR HARGUNEEN MANTENTZEA ETA ZAINZTA

27. ARTIKULUA – SUTEEN AURKAKO ZERBITZUENTZAKO UR HARGUNEAK

HIRUGARREN ATALA. BARRUKO INSTALAZIOAK

28. ARTIKULUA – BARRUKO INSTALAZIOEN KONTZEPTUA

29. ARTIKULUA – BARRUKO INSTALAZIOEN BALDINTZAK

30. ARTIKULUA – BARRUKO INSTALAZIOAK ALDATZEA

31. ARTIKULUA – IKUSKATZEKO ESKUMENA

LAUGARREN ATALA. NEURTZEKO EKIPOAK

32. ARTIKULUA – DEFINIZIOA, KOKALEKUA, MOTAK ETA EZAUGARRIAK

33. ARTIKULUA – KONTAGAILUEN EZAUGARRITEKNIKOAK

34. ARTIKULUA – KONTAGAILU OROKORRA

35. ARTIKULUA – BANAKAKO KONTAGAILUEN BATERIA

36. ARTIKULUA – LOKALEN EZAUGARRIAK BANAKAKO KONTAGAILUEN BATERIAK KOKATZEKO

37. ARTIKULUA – ARMAIRUEN EZAUGARRIAK BANAKAKO KONTAGAILUEN BATERIAK KOKATZEKO

38. ARTIKULUA – KONTAGAILUAREN JABETZA

39. ARTIKULUA – KONTAGAILURIK GABEKO HORNIDURA

40. ARTIKULUA – KONTAGAILUAREN MANTENTZETASA

41. ARTIKULUA – KONTAGAILUA EGIAZTATZEA

42. ARTIKULUA – KONTAGAILUA ZIGILATZEA

43. ARTIKULUA – KONTAGAILUA ALDIZKA BERRITZEA

44. ARTIKULUA – KONTAGAILUA ORDEZTEA

45. ARTIKULUA – KONTAGAILUA MUNTATZEA ETA DESMUNTATZEA

46. ARTIKULUA – KONTAGAILUA LEKUZ ALDATZEA

47. ARTIKULUA – EGIAZTAPENAREN ZIOZKO LIKIDAZIOA

48. ARTIKULUA – KONTAGAILUAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA

IV. KAPITULUA - ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

LEHEN ATALA. HORNIDURA LEHEN MAILAKO SAREAN

49. ARTIKULUA – URA OINARRIZKO SAREAN HORNITZEKO KONTRATUA. IZAPIDETZEA

50. ARTIKULUA – HARGUNE BERRIAK LEHEN MAILAKO SAREAN PARTZUERGO KIDE DIREN UDAL ETA KONTZEJUENTZAT

51. ARTIKULUA – BEHIN BEHINEKO UR HARGUNEAK LEHEN MAILAKO SAREAN

52. ARTIKULUA – LEHEN MAILAKO SAREARI LOTUTAKO ERABILTZAILE TALDEEN BEREZITASUNAK

BIGARREN ATALA. HORNIDURA BIGARREN MAILAKO SAREAN

53. ARTIKULUA – UR HARGUNEEN EMAKIDA

54. ARTIKULUA – UR HARGUNEAK KONTRATATZEA

55. ARTIKULUA – HORNIDURA KONTRATATZEA

56. ARTIKULUA – ERABILTZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK BIGARREN MAILAKO SAREAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO

57. ARTIKULUA – ZERBITZUAREN KONTRATUAREN EREDUA

58. ARTIKULUA – KONTRATUA SUBROGATZEA

59. ARTIKULUA – KONTAGAILU OROKORREN BIDEZKO KONTRATUAK

HIRUGARREN ATALA. BALDINTZA OROKORRAK

60. ARTIKULUA – HORNIDURA MOTAK

61. ARTIKULUA – KONTRATUAREN IRAUPENA

62. ARTIKULUA – IRAUPEN LABURREKO KONTRATUAK

63. ARTIKULUA – KONTRATUEN BEREIZKETA

64. ARTIKULUA – KLAUSULA BEREZIAK

- 65. ARTIKULUA – SUTEEN AURKAKO ZERBITZUENTZAKO KONTRATUAK
- 66. ARTIKULUA – ZERBITZUAREN DOAKOTASUNAREN EDO BALDINTZA BEREZIEN ARAUKETA
- 67. ARTIKULUA – KONTRATUA UKATZEA
- 68. ARTIKULUA – ZERBITZUAREN PRESTAZIOA ETETEKO ARRAZOIBIDEA ETA ZIOAK
- 69. ARTIKULUA – ZERBITZUAREN PRESTAZIOA ETETEKO PROZEDURA
- 70. ARTIKULUA – EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOZKO ZERBITZUAREN PRESTAZIOA ETE-TEKO KASUEN BEREZITASUNAK
- 71. ARTIKULUA – BEREHALAKO ETENDURA KASUEN PROZEDURA
- 72. ARTIKULUA – HORNIDURA KONTRATUA AZKENTZEA
- V. KAPITULUA - IRAKURKETAK ETA TASEN ORDAINARAZPENA
- 73. ARTIKULUA – IRAKURKETAREN ALDIZKAKOTASUNA
- 74. ARTIKULUA – IRAKURTZEKO SISTEMA
- 75. ARTIKULUA – ORDAINARAZTEKO KONTSUMOAK ZEHAZTEA
- 76. ARTIKULUA – LIKIDAZIOEN ERREGULARIZAZIOA
- 77. ARTIKULUA – EZUSTEKO MATXUREN ZIOZKO MURRIZKETAK
- 78. ARTIKULUA –TARIFEN EGITURA
- 79. ARTIKULUA –TASEN LIKIDAZIOEN ESKAKIZUNAK
- 80. ARTIKULUA – ERABILTZAILEARENTZAKO FAKTURAZIOA
- 81. ARTIKULUA – ORDAINBIDEAK
- 82. ARTIKULUA – EPE EXEKUTIBOAN ORDAINTZEA
- VI. KAPITULUA - ERREKLAMAZIOAK, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIOA
- 83. ARTIKULUA – ARAUBIDE JURIDIKOA ETA PROZEDURA
- 84. ARTIKULUA – ORGANO ESKUDUNAK
- 85. ARTIKULUA – ERREKURTSOEN ARAUBIDEA
- 86. ARTIKULUA – ERREKURTSOEN ORDEZKO PROZEDURAK
- 87. ARTIKULUA – JURISDIKZIO ESKUDUNA
- XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua – Xedea

1. Honako ordenantza honen xede dira partzuergoaren ondoko prestazio eta jarduerak:

a) Ur hornidura lehen mailako sarean, ur hornikuntza “altan” edo adukzio- zerbitzua (azkenak ondoko funtzioak aintzat hartzen ditu: ura biltzea eta pilatzea, garraiatzea, tratatzea eta kontsumitzaile handiengana edo banaketa sareko goiburuko biltegietaraino eramatea), eta lehen sarean hornitutako ura biltzea.

b) Ura bigarren mailako sarean hornitzea, hornidura “bajan” edo banaketa zerbitzua (azkenak amaierako erabiltzaileen, hala nola etxebizitza, saltoki, industria eta gainerako establezimenduen instalazio pribatuekin lotuta dauden harguneetara banatzeko eginkizunak aintzat hartzen ditu).

c) Abonatuak kudeatzea, lehen mailako nahiz bigarren mailako sarean, baldin eta erabiltze horiek uraren ziklo integralean txertaturik badaude. Hala bada, ondoko eginkizunak gauzatu behar dira: neurtzeko ekipoak kontrolatzea, zerbitzuak kontratatzea, kontsumoak kontrolatzea, kontsumoen fakturazioa eta ordainketa kudeatzea, erreklamazioak ebatzea eta jardueraren ziozko zehapenak ezartzeko eskumena egikaritzea.

2. Zerga eta ordainketa arloetan, erabiltzaileekiko harremanek men egin beharko diote Partzuergoan unean-unean indarrean dagoen zerga ordenantzari, bai eta Arabako Toki Ogasunen Foru Arauak ezarritakoari eta gainerako xedapen aplikagarriek diotenari ere.

3. Partzuergoak behar beste ordenantza eta xedapen eman ahalko ditu ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzeko. Manu horiek osagarriak izan ahalko dira edo, bestela, honako ordenantza hau garatzekoak.

2. artikulua – Eragin eremua

1. Partzuergoa osatzen duten erakundeei gagozkiela, honako ordenantza honen edukiaren eragin eremua ondokoa izango da:

a) Erabiltzaileei lehen mailako sarearen bidez ematen zaien ur hornidurari dagokionez, ordenantzak era bereko aplikazioa izango du Partzuergoaren lurralde eremu osoan.

b) Bigarren mailako sarearen bidezko hornidura zerbitzuari dagokionez, ordenantza aplikatuko zaie partzuergoko kide diren erakunde guztiei, baldin eta partzuergoak zerbitzuaren prestazioaren kargu hartu badu. Horren ondorioz, honako ordenantza honetan ageri diren banaketa sareei buruzko xedapen oro bakarrik aplikatu zaizkie esandako erakundeei. Bestelakoetan, tokian tokiko udal ordenantzek xedatutakoa bete beharko da.

c) Honako ordenantza hau era berean aplikatuko da Partzuergoaren lurralde eremu osoan, “Abonatuaren kudeaketa” deritzon jardueraz den bezainbatean, lehen mailako sarearen nahiz bigarren mailako sarearen erabiltze diren guztiei dagokienez.

2. Era berean, honako ordenantza hau aplikagarria izango zaie Partzuergoak 4. atalean ageri diren zerbitzuak edo zerbitzuetako batzuk ematen dizkien erakundeei, hitzarmen egokia dela bide.

3. artikulua – Kontzeptuen definizioa. Izendapenak

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek emango ditugu:

a) Partzuergoko erakundeak: partzuergoa osatzen dutenak; hala, Partzuergoaren atal dira eskubide osoko kide legez.

b) Partzuergoz kanpoko erakundeak: halakoak izango dira Partzuergoarekiko lankidetzat hitzarmena sinatuta dutenak, partzuergoak ur hornidurari edo saneamenduari lotutako jarduera jakin batzuk eskain diezazkien, baina ez dira Partzuergoaren atal eskubide osoko kide legez.

c) Erabiltzaileak: zerbitzuaren hartzaileak dira, eta Partzuergoari lotuta daude lotura-harreman berezi baten bitartez. Erabiltzaileak lehen mailako sarearen erabiltzaile edo bigarren mailako sarearen erabiltzaile izan daitezke.

d) Lehen mailako sarearen erabiltzaileak: banaka hartuta, etxeko erabiltzaile ez direnak eta, norberaren jardueraren ezaugarriak direla eta, sareko lotura altan eskatzen dutenak. Mota horretako erabiltzaileek berariazko kontratua izan beharko dute Partzuergoarekin eta Partzuergoak urez hornitu behar ditu lehen mailako sarea erabiliz. Era berean, toki erakundeak lehen mailako sarearen erabiltzailetzat hartu behar dira, partzuergoak ur horniduraren zerbitzua altan eskaintzen baldin badie.

Beste alde batetik, lehen mailako sarearen erabiltzaileak banakoak edo taldeak izan daitezke, betiere, azken kasuari gagozkiola, Taldeko kide bakoitza lehen mailako sarearen erabiltzailea bada.

e) Bigarren mailako sarearen erabiltzaileak: Gainerako erabiltzaileak, pertsona fisikoak edo juridikoak izanik ere, banako kontsumoa edo taldekoa (besteak beste, hirigintza erakunde laguntzailea, erabiltzaileen erkidegoak egiten badute, Partzuergoarekiko kontratua sinatu badute eta hornidura bigarren mailako sarearen bidez jasotzen badute.

2. Honako ordenantza honen formulazioa errazteko helburuz, ordenantzan ageri diren URBIDE, Arabako Ur Partzuergoa-Consorcio de Aguas de Álava deritzon erakundeari buruzko aipamenak modu laburrean egingo dira, "Partzuergoa" izendapena erabiliz.

4. Artikulua – Eskumenen araubidea.

Honako ordenantza hau aplikatzerakoan, erabiltzaileen segurtasun juridikoa bermatzeko, ordenantzaren xede diren prestazioei dagokien eskumen-banaketa honako hau da, Partzuergoaren legezko eraketaren eta erakundearen arauen arabera:

1. Partzuergoa osatzen duten lurralde eremuan, Partzuergoaren eskumenekoak dira uraren ziklo integralari eta hornidura zerbitzuari doakienez:

a) Horniduraren bigarren mailako sareak egitea, handitzea eta horien mantentze-lana egitea.

b) Erabiltzaileentzako ur hornidura, behar bezalako emari, erregulartasun eta edangarrtasun mailetan eskainita.

c) Erabiltzaileek bigarren mailako sarea erabiliz baliatzen dituzten harguneak arautzea.

2. Uraren ziklo integralean, Partzuergoz kanpoko erakundeek beren gain hartu beharko dituzte honako artikulua honen 1. atalean deskribatutako eskumenak, bai eta ur hornidurari dagokionez, Partzuergoaren esku geratu ez diren guztiak, Partzuergoarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenetan jasotakoari jarraiki.

Beste alde batetik, Partzuergoaren ardurapekoak izango dira ondokoak:

a) Urez hornitzeko zerbitzua ematea lehen mailako sarea erabiliz.

b) Lehen mailako sarean, lanak eta instalazioak egitea ur hornidura ahalbidetzeko, bai eta aipaturikoen zaintza eta ustiapena bideratzea.

c) Urez hornitzeko zerbitzua ematea industriei eta gainerako kontsumitzaile handiei, lehen mailako sarea erabiliz.

d) Abonatuen kudeaketa egitea, lehen mailako sarearen erabiltzaileena eta, uraren ziklo integralari doakionez, Partzuergoko kide izanik, bigarren mailako sarearen erabiltzaileena, honako ordenantza honen 3. artikulua ezarritako baldintzetan. Aurrekoa gorabehera, kudeaketaren berri eman beharko du ur banaketaren titularrek eskatzen diotenean, banaketa behar bezala aztertzeke, fakturatutako bolumenen berri emanda.

e) Urez hornitzeko eta abonatuaren kudeaketa bideratzeko zerbitzuak ematea hala eskatzen duten Partzuergoak kanpoko erakundeentzat, Batzar Nagusian ezartzen diren baldintzei jarraiki.

4. Artikulu honen aurreko ataletan ezarritakoari kalterik egin gabe, Partzuergoak bigarren mailako sareak ustiatzen eta horien mantentze lana egiten badu, udal/kontzejuen eskariz eta ondorio horretarako ezartzen diren baldintzei jarraiki, esandako erakundeari egokituko zaizkio honako artikulu honen lehen atalean jasotako eskumenak.

Horren ondorioz, honako ordenantza honetan ageri diren ur banaketari buruzko aipamen guztiak bakarrik aplikagarriak izango dira Partzuergoak zerbitzua bajan ematen ditueneko udal eta kontzeju mugarteetan. Bestelakoetan, tokian tokiko udal ordenantzek xedatutakoa bete beharko da.

5. artikulua – Indarraldia

Honako ordenantza honek indarraldi mugatua izango du, baldin eta maila berdineko edo handiagoko legezko xedapen batek osorik edo zati batean aldatzen ez duen bitartean.

II. KAPITULUA - UR HORNIDURAREN ZERBITZUAREN EDUKIA

LEHEN ATALA. PARTZUERGOAREN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

6. artikulua – Prestazioaren betebeharraren edukia

1. Ur horniduraren zerbitzua zerbitzu publikoa da eta, beraz, hura eskatzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek erabiltzeko eskubidea dute, honako ordenantza honetan ezarritako muga eta betebeharren arabera eta, oro har, araudi aplikagarriak ezarritako muga arabera.

2. Arautzeko tresna eta modua gorabehera, uraren zikloaren integritasuna aintzat hartuta, Partzuergoaren eremuari lotutako ur hornidura eta saneamendua zerbitzu osagarriak dira eta zerbitzu horien ematea gauzatu egingo da honako ordenantza honen 13. artikulua ezarritako lotura baldintzei jarraiki.

7. artikulua – Partzuergoaren betebeharrak

Partzuergoaren betebeharrak hauexek dira:

1. Saneamendu zerbitzua emateko beharrezkoak diren obra eta instalazioen plangintza egitea, horiek proiektatzea, gauzatzea, mantentzea eta ustiatzea.

2. Partzuergoak hornitzen duen uraren edangarritasuna bermatzea, Egun indarrean dauden osasun arloko xedapenei jarraiki.

3. Ur horniduraren erregulartasunari eta iraunkortasunari eustea, honako ordenantza honen 11. eta 12. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Hala eta guztiz ere, ordenantza honetan jasotako kasuetan, zerbitzuaren etenak ezin izango zaizkio egotzi Partzuergoari.

4. Ematen diren zerbitzuei unean-unean dauden tarifak aplikatzea.

5. Idatziz jasotako edozein erreklamazio arrazoituri erantzutea, tokiko administrazioen jardunbidea artezten duten manuetan ezarritako baldintzen arabera.

6. Administrazio publiko eta ikastetxeekin elkarlanean aritzea erabiltzaileek edo, oro har, jendeak, instalazioen funtzionamendua ezagut dezan.

7. Informazio zehatz eta eguneratua ematea zerbitzuak ematen dituen lurralde esparruaren barruan, ur hornidura eta saneamenduari lotutako instalazioek eragina edo hedadura duten eremuari dagokionez.

8. Partzuergoaren eragin eremuaren barruan, hornidura ematea eta zerbitzua handitzea eskatzen duten pertsona eta erakunde guztiei, honako ordenantza honetan ezarritako baldintza eta baldintza teknikoei jarraiki.

8. artikulua – Partzuergoaren eskubideak

Honako ordenantza honetan eta gainerako lege arauetan ezarritakoez gain, ondokoak dira Partzuergoaren oinarritzko eskubideak:

1. Zerbitzuan dauden edo erabiltzen ari diren barruko instalazioak ikuskatzea, begiratzea eta kontrolpean hartzea. Eskubide horri lotuta dago kontsumoak kontrolatzeko sistema teknikoak instalatzeko baldintzak zehazteko ahalmena.

2. Ematen dituen zerbitzuen ziozko zenbatekoa erabiltzaileengandik jasotzea, unean-unean indarrean dauden tarifen arabera. Tarifa horien bidez, ur hornidura eta saneamenduko zerbitzuen mantentzea eta garapena bermatu behar dira.

9. artikulua – Erabiltzaileen betebeharrak

Honako ordenantza honetan modu berezian arautzen diren kasuak gorabehera, erabiltzaile jakin batzuentzat berariazko betebeharrak ekar ditzaketelako, oro har, erabiltzaileen betebeharrak ondoak izango dira:

1. Hornidura kontratua formalizatzea, aurrerago agertzen diren baldintzen arabera.

2. Hornidurari lotutako elementuen kokapena eta horien irakurketa erraztea Partzuergoari, hau da, kontagailuak nahiz irakurtzeko sistemak, eta onibarrera sartzeko modua ematea behar bezala identifikaturik dauden langile baimenduei, zerbitzuari lotutako egiaztapenak egitea izan dezaten.

Era berean, Partzuergoaren esku eta erabiltzeko moduan izango ditu neurtzeko ekipoak eta, hala badagokio, elementu osagarri egokiak instalatzeko beharrezkoak diren lokalak, esparruak edo kutxetak. Aipaturiko lokalak zerbitzua jasotzen duen higiezinako gela irisgarri eta/edo er-kideetan egongo dira eta, behar izanez gero, irakurketa sistemak ezartzeko elementuak izango dituzte.

3. Partzuergoak prestazio eta zerbitzuen inguruan eskatutako datuak ematea, zehaztasun osoz.

Datu horiei gagozkiela, hala dagokionean, erabiltzailearen baliabide hidraulikoen berri eman behar da.

4. Ura eta erabiltzailearen zerbitzuko instalazioak egoki erabiltzea eta beharrezko neurriak hartzea instalazioak behar bezala zaintzeko; hala berean, behar ez den kontsumoa eta ura hornitzeko beste iturri batzuk ekidingo ditu erabiltzaileak eta balizko ur kutsatzaileak sarera itzul daitezzen saihestuko du.

Ondorio horietarako, erabiltzaileak, ondokoak egin beharko ditu:

a) Saneamenduko sareetan asaldaketarik eragiten bada, beharrezko ekipo zuzentzaileak instalatu beharko ditu.

b) Kontagailuaren erregistroa edo kutxeta aldatuko du, bai eta, kontagailu berria instalatzeko edo lehendik dagoena ordeztzeko beharrezkoa izanez gero, barruko instalazioa ere; bereziki, aldaketa ahalbidetuko du lehendik dagoen instalazioa Partzuergoak ezartzen dituen urrutiko irakurketa sistemetara egokitzeko. Ildo horretan, erabiltzaileak sistema edo teknologia berrietara egokitzeko aldaketak edo moldaketak ahalbidetuko ditu, kontagailua edo behar diren beste osagai batzuk instalatzeko.

c) Ezin izango du ura hartu suteen aurkako hornidura instalazioetatik berariaz zehaztutako kasuetan izan ezik eta ezingo ditu instalazio horiek baliatu beste erabilera batzuetarako.

d) Instalazioetako matxurak konpondu beharko ditu.

e) Beste edozein neurri hartu beharko ditu, ur horniduraren erabilera egokia bermatzeko beharrezkoak badira.

5. Neurtzeko gailuen manipulazioak saihestuko ditu –bai eta urrutiko irakurketa ekipoen gainekoak ere–, eta horiek behar bezala erabiltzeko edo ordezteko baldintza egokietan edukiko ditu, zigiluak ukitu gabe.

Erabiltzaileak ez du elementurik edo tresnarik –hala nola urrutiko irakurketan edo domotikan erabiltzen direnak– instalatuko Partzuergoak kontsumoak neurtzeko eta tasa egokiak likidatzeko darabilen kontagailuaren gainean.

6. Kontagailua bera edo kontagailura iristeko modua ez du aldatuko, Partzuergoak aurre-tiazko baimenik eman gabe.

7. Bide publikoan dauden ixteko giltzak ezin izango ditu maneiatu justifikatutako arrazoirik gabe, zigilaturik egon ala ez.

8. Erabiltzaileak ura erabiltzeko eskubidea du kontrataturiko moduan eta kontrataturiko erabileretan; dena den, Partzuergoari baimena eskatu beharko dio instalazioetan kontratatutako emarietan hazkuntza dakarren edozein aldaketa egiteko, harguneen kopuruak aldatzeko edo, oro har, kontratuaren baldintzak aldatzeko.

9. Erabiltzaileak ezin izango die hirugarrenei urik eman, ez doan, ez ordaindurik, eta ondorioz, ez du bere sarean adarrik edo desbiderapenik ezarriko edo baimenduko, modu iraunkorrean nahiz behin-behinean, eta erabiltzailearen horniduran gertatzen den iruzur ororen erantzule izango da, erabiltzaileak berak egin badu edo haren menpeko pertsona batek egin badu.

10. Unean-unean indarrean dauden tarifak ordainduko ditu, erregistratutako ur kontsumoen arabera, nahiz eta kontsumoa ihes, matxura edo barruko instalazioen eraikuntza edo zaintza akatsen ziozkoa izan, bai eta beste kontzeptu batzuen ziozko tarifak ere, zerga ordenantza egokian ezartzen diren baldintzei jarraiki.

11. Kontratuaren titulartasun aldaketen berri jakinaraziko du, bai eta hornitutako higiezinan gauzatzen den jardueraren aldaketen berri ere, eta/edo fakturazioan eragin nabarmena izan dezaketen beste alderdi batzuen berri.

12. Kontagailu bakar baten bidez hornitzen diren higiezin, urbanizazio edo industrialdeei dagokienez, jabeekideen erkidegoa, hirigintza erakunde laguntzailea edo, oro har, hornitzekoa den multzoaren titulartasunaz jabetuko den erakundea edo, kideen partez, zerbitzua ematearen erantzukizuna bere gain hartzen duen erakundea legez eratu behar dute erabiltzaileek; era berean, Partzuergoari jakinarazi beharko diote horren ildoan gertatzen den zeinahi aldaketaren berri.

13. Erabiltzaileak Partzuergoari jakinarazi beharko dio banaketa sare orokorrean jazotzen den edozein matxura edo asaldaketaren berri.

14. Erabiltzaileak ez ditu Partzuergoaren urrutiko irakurketa sistemak norberaren helburuetarako baliatuko. Bestalde, ez du aipaturiko sistemek igortzen duten informazioa atzitu edo ez dute informazioaren edukia aldaraziko.

10. artikulua – Erabiltzaileen eskubideak

Erabiltzaileak ondoko eskubideak dauzka:

1. Kontratua idatziz formalizatzeko eskubidea. Kontratu horretan, zerbitzu ematearen oinarriko baldintzak agertuko dira.

2. Erabiltzailearen instalazioetan, indarrean dagoen legeriak ezarritako edangarritasun baldintzak betetzen dituen ura jasotzeko eskubidea.

3. Edateko uraren hornidura etengabe edukitzeko eskubidea, hornidura kontratuan adierazitako baldintzen arabera, muga bakarrak araudi honetan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritakoak izanik.

4. Hornidurari dagokionez, zerbitzu emateari eta horren funtzionamenduari buruzko kontsultak egiteko eskubidea, bai eta erantzuna jasotzeko eskubidea ere, erabilitako bide beretik, tokiko administrazioen jardunbidea artezten duten arauetan ezarritako baldintzei jarraiki.

5. Neurtzeko gailua erakunde egokiak egiazta dezan eskatzeko eskubidea, behar bezala ote dabilen inguruko desadostasunik dagoenean.

6. Partzuergoaren edo bertako langileen jarduera dela eta, erreklamazioa aurkezteko eskubidea, erakundearen eskumenen esparruan. Horretarako, erabiltzaileak erreklamazioa aurkeztuko du idatziz, Urbideren bulegoen erregistro orokorrean, eta kopia zigilatua itzuliko diote. Era berean, tokiko administrazioei aplikagarri zaien araubide juridikoa, jardunbidea, antolaketa eta prozedura arautzen dituen legeriak ezarritako gainerako bideak erabiliz ere aurkeztu ahalko du erreklamazioa.

7. Zerbitzuen ziozko tasen ordainketa eskatzeko eskubidea irakurketa egiten deneko maiztasun berdinez.

8. Kobrantzak, ordainketak edo antzeko izapideak egin behar direnetan, erabiltzea berariaz ez agertzeko eskubidea, betiere aurrez aurre egotea beharrezkoa ez bada.

9. Itxaronaldirik gabe, luzaroko egonaldirik gabe edo, oro har, pertsonen duintasunari kalterik eragiten dioten baldintzarik gabe artatzeko eskubidea.

BIGARREN ATALA. ZERBITZUAREN PRESTAZIOAREN ERREGULARTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA

11. artikulua – Zerbitzuaren prestazioaren erregulartasuna eta iraunkortasuna

1. Partzuergoak urez hornitzeko zerbitzuari eusteko betebeharra dauka modu iraunkorrean, ezinbesteko kasuan edo instalazio publikoen matxura izan ezean. Bi kasu horietan, ezin izango zaio Partzuergoari inolako erantzukizunik egotzi.

2. Partzuergoak aldi baterako eten ahal izango du zerbitzua, ezinbesteko mantentze, konpontze eta handitze beharrezkoengatik; halakoetan, etendurak ez du kalte-ordainik ekarriko.

3. Aurreikusi eta aurretiaz programa daitezkeen etenduretan, Partzuergoak etenaldien berri eman beharko du eskura dituen bideak erabiliz, hala nola prentsa, irratia, oharrak jarrita erai-kinetan eta abar, gutxienez, etendura izan baino 24 ordu arinago.

4. Ura zertarako erabiltzen duten, ezinbesteko etenaldietan urik gabe ezin egon daitezkeen erabiltzaileek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte aipaturiko gertakizunei aurre egiteko.

5. Era berean, behar-beharrezkoa izango da erabiltzaileek aurreikus dezaten (eta beharrezko seguratsun neurriak har ditzaten) matxuraren eta/edo ezinbesteko kasuaren, mantentzen lanen edo sarea handitzeko lanen zioz instalazio eta hargailuetan gerta daitezkeen ondorioak.

6. Partzuergoak ez du inola ere eginbeharrik izango ur presio jakin batez hornitzeko. Hala, erabiltzaileak bestelako presioa beharko balu, Partzuergoak hornitutako urarena baino handiagoa ala txikiagoa, erabiltzaileak berak instalatu eta mantendu beharko du presio handiagoko edo txikiagoko sistema, hurrenez hurren, bai eta sistema horren ondotik dagoen instalazioarena ere, kontsumoaren tokiraino.

12. artikulua – Horniduraren murrizketak

1. Partzuergoak horniduraren murrizketak ezarri ahalko ditu, baldin eta, ur emari eskasa edo tratamendurako zailtasunak direla eta, komenigarritzat jotzen badu.

2. Kasu horretan, erabiltzaileei azaldu beharko die, ahalik eta argien, zer-nolako neurriak hartuko dituen eta neurri horiek noiztik hartuko dituen hedadura handieneko hedabideak erabiliz.

HIRUGARREN ATALA. ZERBITZUA EMATEA**13. Artikulua – Hornidura eta saneamendu zerbitzuen osagarritasuna**

1. Hornidura eta saneamendu zerbitzuak osagarriak direnez, Partzuergoak ez ditu horiek banaka eskainiko.

2. Salbuespenez, Partzuergoak arestian esandako zerbitzuetako bat banaka emateko baimena emango du, erakundearen iritziz, zerbitzu bakarra ematea nahikotasunez justifikatzen denean.

3. Zerbitzuak banaka ematerakoan, ondokoak aintzat hartu beharko dira:

a) Hondakin uren saneamendu berekia duten erabiltzaileei dagokienez, isuriak ibilgu publikora behin betiko botatzeko eta ibilgu publikora botatzeko baimena badute, Partzuergoak banaka eskaini ahalko die horniduraren zerbitzua.

b) Aurreko atalean jasotako kasuetan, horniduraren banakako zerbitzua baimentzen bada, erabiltzailearen izaera hartuko da isuriaren baimena eskuratzen denean, saneamendu eta arazketari buruzko ordenantzak ezarritako baldintzei jarraiki eta indarrean dauden gainerako xedapenei jarraiki, honako ordenantza honen 55 eta 56. artikuluek xedatutako zerbitzuaren kontratazioa formalizatzeko eskakizunei kalterik egin gabe.

c) Erabiltzaileek baliabide berekiak izan eta hondakin urak saneamenduan isurtzen badituzte, Partzuergoak saneamendu zerbitzua baino ezin izango die banaka eskaini; hala eta guztiz ere, baliabide berekien erabileraren berri eman beharko diote Partzuergoari.

14. artikulua – Zerbitzua emateko betebeharrezkotasuna

1. Partzuergoaren urez hornitzeko zerbitzua eskainiko die zerbitzua eskatzen duten pertsona edo erakunde guztiei, Partzuergoaren eskumendeko eraikin, lokal edo toki itxietan erabiltzeko, betiere aipaturikoek ordenantza honetan eta indarrean dagoen gainerako legerian ezarritako eskakizunak betetzen badituzte eta eskatzailea zerbitzua jasotzeko moduan badago.

2. Hala eta guztiz ere, horniduraren emakida ezinbestean lotuko zaio eskatzailearen instalazioak urez hornitzeko daukan aukerari. Eskatzaileak horri buruzko informazioa eskura izango du partzuergoaren bulegoetan.

3. Ildo horretan, partzuergoak men egin beharko dio indarrean dagoen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuak gai horren inguruan xedatzen duenari eta, bereziki, esandako araudi horretan ageri diren baztertze kasuei, biztanlegune txikiak direnean.

15. artikulua – Zerbitzua jasotzeko eskaera

1. Ur edangarria jaso nahi duten interesdunek Partzuergoari eskatuko diote eta, kasuan-kasuan, jardueraren arabera, emariak zertan erabiliko dituzten eta zenbat erabiliko duten adieraziko dute.

2. Partzuergoak informazioa emango du norbanakoen instalazioek bete beharreko ezaugarriei buruz, hornidura emateko aukerari edo aukerei buruz eta hornidurari lotutako tarifei buruz. Era berean, zerbitzua jasotzeko eskubideen zenbatekoari eta uko egiteko eskubideari buruzko informazioa (eskabidea egin eta bost eguneko epearen barruan uko eginez gero, erabiltzaileak ez du inolako kosturik ordaindu beharko) emango du, betiere tasaren sortzapenaren xedea den zerbitzua eta/edo hornidura eman ez bada. Epe hori igarota, ez da bidezkoa izango honako ordenantza honen 31.5 artikulua ezarritako gastuak itzultzea.

16. artikulua – Banaketa sarean eta/edo ur hargunean maniobra egiteko eskaera

Banaketa sarean edo erabiltzaile baten barruko instalazioaren hargunean egin beharreko edozein maniobra Partzuergoak bakarrik egin ahal izango du.

Banaketa sarearen edo hargunearen gaineko etendurarik egin nahi duten interesdunek, erregistro giltzaraino, Partzuergoari eskatu beharko diote eta zerga ordenantzak ondorio horretarako ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

17. artikulua – Banaketa sarearen instalazioen hornidura eta handitzeak edo aldaketak hiri lurzoruan

1. Hornidurarik ez duten edo lehendik duten sarea aldatu edo handitu behar duteneko hiri eremuetako horniduren emakida hornikuntza sistemaren ahalbide tekniko eta ekonomikoei lotuko zaie.

2. Ondorio horietarako, leku jakinen bat hornidurarik gabekotzat joko da hargunea eskatzen deneko tokian sarerik ez dagoenean.

Bestalde, leku jakinen batek ez du hornidura nahikorik izango erabilgarri dagoen emaria nahikoa ez denean egin den eskaerari erantzuteko.

3. Partzuergoak ez du inola ere eginbeharririk izango ura presio jakin batez hornitzeko. Presio nahikorik ez bada, eskatzaileak gainpresioaren sistema instalatu eta horren mantentze lana egin beharko du, bai eta sistema horren ondoko instalazioa egokitu ere, kontsumoaren tokiraino.

Halako kasuetan, Partzuergoak egingo ditu lehendik dauden sareekiko loturak; erabiltzaileak, aldiz, zerga ordenantzak ondorio horretarako ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

18. artikulua – Hornidura industriale edo urbanizazio berrietan

1. Oro har, industriale, egoitzazko urbanizazio edo hirigintza garapen berrietan egin behar harko hornidura hornikuntza sistemaren ahalbide tekniko eta ekonomikoei lotuko zaie eta, hortaz, Partzuergoko kide diren erakundeek, hirigintzako hazkundeak dakartzaten antolamendu eta hirigintzako tresnak onartu baino lehen, hornikuntzari buruzko benetako erabilgarritasunari buruzko txostena eskatu beharko diote Partzuergoari.

2. Artikulu honen lehen atalean jasotako txostena aurkakoa balitz, Partzuergoak ez du ur hornidurarik emateko betebeharririk izango.

3. Halako kasuetan, Partzuergoak egingo ditu lehendik dauden sareekiko loturak; erabiltzaileak, aldiz, zerga ordenantzak ondorio horretarako ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

III. KAPITULUA - UR HORNIDURAREN INSTALAZIOAK

LEHEN ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

19. artikulua – Hornidurako instalazioen zerrenda

Zerbitzuan dauden instalaziotzat joko dira horniduraren zerbitzua era iraunkor eta jarraituan ematen dutenak, eta ondoan ageri diren mota hauetako bati dagozkionak:

a) Erabiltzaile guztientzako instalazio orokor eta erkideak

– Ur emariak biltzeko instalazioak.

– Ura tratatzeko instalazioak.

– Hodi sare orokorra.

– Ur andel erregulatzailerak.

b) Lehen mailako sarearen erabiltzaileentzat

– Lotura instalazioak.

– Instalazio hartzaileak eta banatzekoak.

c) Bigarren mailako sarearen erabiltzaileentzat

- Banaketa sareak.
- Harguneak.
- Erabiltzaileen barruko instalazioak, orokorrak nahiz bereziak.

20. artikulua – Hornidurako instalazioen zerrenda

1. Emariak hartzeko instalazioak ondokoak izango dira: abonatu ur eskariari erantzuteko beharrezkoa den ur bolumena eskaintzeko ezinbesteko diren iturburu multzoa, hodiak, ponpatzeak, maniobra eta kontrol ekipoak, fabrikako obrak eta gainerako elementuak.

2. Ura tratatzeko instalazioak ondokoak izango dira: gizakiek ura kontsumitzea izan dezaten, ura garbitzeko eta arazteko erabiltzen diren makinak eta gainerako elementu guztiak.

3. Hodi sare orokorra deritzogu erreten, hodi eta ponpaketen sareari, maniobra eta kontrol elementu eta guzti, ura andel erregulatzaileraino edo lotura instalazio eta lehen mailako sarearen erabiltzaileen harguneetaraino eramaten duenari.

4. Ur andel erregulatzaileak ditugu alde aurretik tratatutako ura banatze sarera sartu arte ura aldi baterako biltzen duen andelen multzoa.

5. Lotura instalazio esaten diegu ura hodi orokorretik edo andel erregulatzaileratik, kasuan-kasuan, lehen mailako sarearen erabiltzaileen barruko instalazioaren hasieraraino edo, bestela, erabiltzaileen elkarteei dagokienez, instalazio hartzaile eta banatzaileetaraino eramaten duten hodian multzoari, neurtzeko ekipoak eta maniobrak egitekoak ere aintzat hartuta.

6. Banaketa sare esaten zaie herrian zehar presio bidez ura eramaten duten hodieiei eta haren maniobra eta kontrol elementuei. Hodi horietatik desbiderapenak egiten dira abonatuak urez hornitzeko.

7. Banatzeko hargunea dugu giltzadun hodian sarea. Sare hori banatzeko saretik abiatzen da eta erabiltzaileen barruko instalazioarekin lotzen da. Hargunea erregistroko giltzan amaitzen da (azkena hargunearen atala da) eta bide publikoan kokatuta dago, hornitu beharreko ondasun pribatuaren mugaren ondoan. Horren ondorioz, hargunea lur edo jabari publikoan egongo da beti. Jabari pribatuan dagoen instalazio oro "barruko instalazioa" izango da beti.

Harguneak higiezin, zerbitzu, lursail edo urbanizazio pribatuei loturik egon daitezke.

8. Instalazio hartzaileak eta banatzekoak dira lehen mailako sarearen erabiltzaileen elkarteen hori, neurtzeko equipo eta maniobrak giltzen multzoak. Halakoek erabiltzaileen elkarteen lotura hodiak eta elkarteko kide bakoitzarenak lotzen dituzte.

9. Bigarren mailako sarearen erabiltzaileen barruko instalazioa instalazio orokorrak eta norberarenak osatzen dute:

a) Barruko instalazio orokor deritzogu harguneko erregistro giltzatik abiatuturik, indarrean dagoen legeriari jarraiki, norbanakoen barruko instalazioekin lotzen diren hodi, giltza, makina eta kontagailuen multzoari. Hala dagokionean, barruko instalazio orokorrekoak dira ur jabari pribatuko esparruetara eramaten dituzten sareak, bai eta eremu pribatuak urez hornitzeko beharrezkoak direnak, banaketa saretik abiatuta.

b) Norbanakoaren barruko instalazioa ondokoek osatzen dute: indarrean dagoen legeria aplikagarriaren baldintzei jarraiki, esparru, lokal edo etxebizitza bateko ura banatzen duten hodi eta giltzak.

21. artikulua – Hornidurako instalazioak oinarrizko sarearen erabiltzaileentzat

1. Partzuergoak ezarri egingo ditu hoditeria orokorraren eta lehen mailako sarearen erabiltzaileen arteko lotura instalazioen baldintzak, eta ikuskatu egingo du eskatzaileak

proiektua eta lanen eraikuntza zein zuzendaritza Partzuergoak ezarritakoen arabera egiten dituela.

2. Lehen mailako sarearen bi erabiltzaile edo gehiago elkartzen badira hoditeria orokorretik edo andel erregulatzailetik datozen emariez hornitzeko lanak eta instalazioak gauzatzeko, ur emaria neurtzeko gailua jarri beharko dute instalazioaren hasieran, erabiltzaile bakoitzaren instalazio hartzaileak daukan banakako neurgailuari kalterik egin gabe.

3. Lotura instalazioak, hartzaileak eta banatzekoak (lehen mailako sarearen erabiltzaileen elkartei dagokienez), jabetza pribatukoak dira.

Nolanahi ere den, Partzuergoak aipaturiko instalazio horien jabetza, mantentze lana eta berrikuntza bere gain hartu ahalko ditu, instalazioen diseinua eta dimentsionamendua direla eta, etorkizunean beste erabiltzaile batzuek baliatu ahal badituzte, lehen mailako sarearen erabiltzaile sustatzaileei gordetzen eta bermatzen zaien gutxieneko edukierari kalterik egin gabe.

Guztiz ere, Partzuergoak lotura instalazioetako neurtze eta kontrol tresnen mantentze lana egin eta berritu egingo ditu.

22. artikulua – Banaketa sarea handitzea edo aldatzea

1. Honako ordenantza honen 17. artikulua jasotzen duenaren arabera, sarea handitu edo aldatu behar denean, Partzuergoak baldintza tekniko egokiak ezarriko ditu eta, bestetik, hala dagokionean, kontsumoa neurtzeko tokia, banaketa sarearen amaiera tokia eta barruko sarearen hasiera tokia zehaztuko ditu.

2. Halakoetan, hornidurarik ez daukan toki bateko eskatzaileek edo sarea handitu edo aldatu beharra daukan toki bateko eskatzaileek aurreikusitako kontsumoari erantzuteko eskariari doazkion gastuak ordaindu beharko dituzte.

3. Halako kasuetan, Partzuergoak egingo ditu lehendik dauden sareekiko loturak; erabiltzaileak, aldiz, zerga ordenantzak ondorio horretarako ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

Lehendik dagoen sarearekiko loturaz kanpoko lan guztiak, hala nola zanga zabaltzea eta ixtea, kutxatilak jartzea, bide zorua eta lauzak berriro jartzea... erabiltzaileak egingo ditu, Partzuergoak ezarritako baldintzei jarraiki.

23. artikulua – Industrialde edo urbanizazio berrietako instalazioak

1. Honako ordenantza honen 18. artikuluan ageri diren industrialde berri, egoitzazko urbanizazio berri eta, oro har, hiri garapen berrientzako hornidurari atxikitako lan guztiak sustatzailearen konturakoak izango dira: a) industrialde edo urbanizazio berria urez hornitzeko banaketa sarea ordeztzea edo handitzea, b) banaketa saretik barruko instalazioetarainoko harguneak egokitzea, c) barruko sare orokorrak egitea.

2. Kasu horietan, barruko sare orokorrak eta harguneak proiektatu eta gauzatu egingo dira Partzuergoak unean-unean ezarritako baldintza teknikoari jarraiki. Gainera, lotu aurretik, Partzuergoak zehaztutako presio eta desinfekzio probak betetzen direla egiaztatuko da.

3. Barruko sare orokorrak jabetza pribatukoak dira; hala ere, barruko sareak egin ondotik, udalaren edo kontzejuaren jabetzapekoak izan daitezke, kasuan-kasuan ezarritako baldintzen arabera, betiere egindako lanek betetzen badituzte Partzuergoak ezarritako baldintza teknikoak.

4. Halako kasuetan, Partzuergoak egingo ditu lehendik dauden sareekiko loturak; erabiltzaileak, aldiz, zerga ordenantzak ondorio horretarako ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

Lehendik dagoen sarearekiko loturaz kanpoko lan guztiak, hala nola zanga zabaltzea eta ixtea, kutxatilak jartzea, bide zorua eta lauzak berriro jartzea... erabiltzaileak egingo ditu, Partzuergoak ezarritako baldintzei jarraiki.

BIGARREN ATALA. UR HARGUNEAK**24. artikulua – Ur harguneen definizioa eta osagaiak**

1. Hargune deritzogu banaketa saretik abiatuta hornitu nahi den higiezinaren barruko instalazioari lotzen zaizkion gailu, hodi, eta giltzen multzoari. Hargunearen gehieneko luzera hogeita hamar metrokoa izango da; hortaz, banaketa saretzat joko da luzera horretatik gorako zeinahi instalazio, egon dauden baldintzak aurretiaz aztertu ondotik.

2. Harguneak elementu hauek izango ditu:

a) Harguneko lepokoa edo "T" erako adarra: Hargune hodia egiteko helburuz, banaketa sarearen hodia inguratzen duen gailua. Gailu horri esker, zuloa egin daiteke banaketa sarean hornidura eten barik. "T" erako adarra Partzuergoak egokitzen jotzen duen guztietan instalatuko da edo, ezinbestean, hargune hodia txertatzen zaioneko banaketa sarearen diametroa 200 mm-koa edo handiagoa denean edo, bestela, hargune hodia 2 hazbetekoa edo handiagoa denean.

b) Harguneko giltza: Hautazko ixte gailua, banaketa sarearen hodiaren eta harguneko lotura hodiaren artean jartzen dena. Harguneko giltza ezinbestean instalatu beharko da, gutxienez, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

Instalazioa "T" baten bidez gauzatzen denean, hargunearen luzera 10 metrokoa edo handik gorakoa denean; edo instalazioa harguneko lepoko baten bidez egin eta hargunearen diametroa 2 hazbetekoa edo handik gorakoa denean.

c) Lotura hodia edo adarra: Harguneko lepokoa edo, hala badagokio, harguneko giltza eta erregistroko giltza lotzen dituen hodia.

Fatxadaren edo onibarraren muga amaitzen da; bertan instalatuko da erregistroko giltza.

d) Erregistroko giltza: Lotura hodiaren edo adarraren eta jabetza pribatuko etxebizitzaren barruko ixteko giltzaren arteko ixte gailua. Erregistroko giltza nahitaez instalatu behar da eta fatxadaren ondoan edo jabetza pribatuko ondasunaren muga jarriko da.

Partzuergoaren eta erabiltzaileen eskumenen arteko elementu bereizlea da erregistroko giltza, bakoitzaren jabetza, mantentzeko behar, ardura eta erantzukizunak zedarritzatzeari dagokionez. Erregistroko giltzarik egon ezean, aipaturikoen arteko elementu bereizlea hargunea jartzen deneko onibar pribatuarekiko muga izango da. Partzuergoak besterik ezin ditu harguneko giltza eta erregistroko giltza manipulatu.

25. artikulua – Harguneen ezaugarriak

1. Partzuergoak zehaztuko ditu harguneen ezaugarriak, horien tamaina, osagai, material mota eta kalitate, gauzatzeko modu eta lotzeko erari dagokienez, sareko presioa, horniduraren erabilera, lokalaren kokapena, materialen normalizazioa eta kontuan hartu beharreko gainerrako inguruabarrak aintzat hartuta, bai eta administrazio eskudunak barruko instalazioei buruz ezartzen dituen arauetako harmonizazioa ere.

2. Harguneen dimentsionamenduak jaramon egin beharko die, batetik, erabiltzaileak adierazten duen kontsumoari eta, bestetik, banaketa sareak daukan eskuragarritasunari.

Oro har, hargunea ateratzen deneko banaketa sareak egoera onean egon beharko du eta barruko diametroa, gutxienez, desbideratu beharreko hargunearenaren bikoitza izango da, justifikatutako kasuetan izan ezik, Partzuergoak horretarako txosten teknikoa egin eta gero. Era berean, Partzuergoaren iritzira, hargune berriaren kontsumoak ezin du modu esanguratsuan aldatu banaketa sarearen erregimen hidraulikoa.

Partzuergoak ez du erantzukizunik hartuko erabiltzailearen barruko dimentsionamendu edo egokitapenaren zioz hornidurak izan ditzakeen eskasia edo akatsengatik, ez eta kontsumoen adierazpenaren zioz jaso diren datuengatik.

3. Harguneeen emakida Partzuergoak erabakitako hodian egingo da, harguneeen ezaugarriak eta sarearen baldintza teknikoak zein diren.

Harguneearen luzera ahalik eta laburrena izango da.

4. Oro har hartuta, hargune bakarra egingo da higiezin bakoitzeko, guztizko kontsumoak eta higiezinaren barruan zenbat lokal hornitu behar diren kontuan hartuta.

Salbuespenez, beheko solairuan dauden merkataritza lokalen beharizan bereziak direla eta, higiezinaren hargune orokorretik berezitateak baliatu ahal dira.

5. Partzuergoak zuzenean gauzatu ahal du hargunea edo, bestela, instalatzaile baimendu bati egiteko eskatu ahal du.

6. Eskatzaileak ordaindu beharko du hargunea egiteko kostua eta horren fakturazioa eta kobrantza zerga ordenantzak ezarritakoari jarraiki kudeatuko dira.

7. Erabiltzaileak hargunea hedatzeko lanak egingo ditu, bere kontura. Hala ere, hargunea hedatzeko lanetan, Partzuergoak ezarritako baldintzei men egin beharko die.

Aurreko leerroaldean zehaztutakoa gorabehera, Partzuergoak berak ere lan horiek egin ahal izango ditu abonatuaren kontura, baldin eta horrek eskatzen badio.

26. artikulua – Ur harguneeen mantentzea eta zaintza

1. Partzuergoak egin behar du, nahitaez eta bere kontura, ur harguneeen mantentzea eta zaintza erregistroko giltzaraino (azkena ere kontuan hartuta). Matxura nahita egingo balitz, konponketa kaltearen eragilearen kargura egingo da.

2. Erregistro giltzatik barrura, jabeak egin beharko ditu nahitaez zaintza, mantentze eta konponketa lanak.

3. Erregistroko giltzatik barrura, hirugarrenei edo zerbitzuari kalterik eragiten dieten ur ihesak egonez gero eta jabeak konpondu ezean, Partzuergoak halakoak konpontzeko eskubidea izango du, jabearen edo jabeakideen erkidegoaren kontura. Komeni da erregistroko giltzaren eta ixteko giltzaren arteko instalazioak hodi hutsen barruan jartzea, aldatzea errazago izan dadin atari, lonja edo lursailen barruko elementuei kalterik egin gabe.

4. Oro har hartuta, ingurumen politika egokiari heltzeko, erregistroko giltzatik kanpora, bide publikoan bertan antzematen den zeinahi ihes edo jario konpondu ahal du Partzuergoak barruko instalazioaren jabearen kontura.

27. artikulua – Suteen aurkako zerbitzuentzako ur harguneeak

1. Suteen aurkako sistemak hornitzeko harguneeak araudi tekniko aplikagarriak ezarritako baldintzei jarraiki gauzatuko dira

2. Suteen aurkako sistemak hornitzeko harguneeak sare orokorraren gainean egingo dira, gainerako erabilera guztietatik bereiz.

Ezin izango da beste adarrik baliatu suteen aurkako zerbitzuez kanpoko erabilerentzat instalazioaren inongo tokitan, Partzuergoak horretarako baimenik eman ezean.

Suteen aurkako araudiak ezarritakoa aintzat hartuta, Partzuergoak ezin badu eskatutako presioa bermatu, erabiltzaileak berak instalatu behar du araudia betetzeko ekipoa eta horren mantentze lana egin beharko du.

3. Erabiltzaileak bakarrik erabili ahal du hornidura mota horiek sutea denean edo hondamendia gertatzen denean. Partzuergoak horniduren erabilera baimendu beharko du aldi-zkako probak egiteko instalazioetan larrialdiko zerbitzuek hala eskatzen dutenean. Dena dela, erabiltzaileek proben berri eta erabiltzeko ordutegiaren berri eman beharko diote Partzuergoari.

4. Hargunetik abiatuta, sare publikotik establezimendu, industria, udalaren instalazio eta abarretara egiten diren adarrek bete beharko dituzte hornidura zerbitzuaren prestazioak dituen araubide eta baldintza berdinak.

HIRUGARREN ATALA. BARRUKO INSTALAZIOAK

28. artikulua – Barruko instalazioen kontzeptua

Uraren jarioaren ohiko zirkulazioaren norantzan, erregistroko giltzaren ondotik dauden hodian eta horien kontrol, maniobra eta segurtasun elementuen multzoa.

29. artikulua – Barruko instalazioen baldintzak

1. Instalatzaile baimendu batek gauzatu beharko ditu urez hornitzeko barruko instalazioak eta instalazio horiek bete beharko dituzte unean-unean indarrean dagoen araudi teknikoak ondorio horietarako ezarritakoak.

Instalazioa osatzen duten elementuak eta ekipoak, hala nola kontagailuak, presio igogailua edo ura tratatzeko sistemak, tamaina nahikoa duten lokaletan instalatu behar dira, elementu guztien mantentze lana behar bezala egin eta aldizka aldatu ahal izateko.

2. Instalazioen zaintza eta mantentzea, bai eta matxuren zioz gertatzen diren kalteen ordainketa ere, unean-unean indarrean dagoen kontratuaren titularraren edo titularren konturakoak izango dira edo, bestela, kontratua gozatzen duen pertsonaren konturakoak.

Aurreko lerroaldean emandako arau orokorrak ez die kalterik egingo kapitulu honen IV. atalean neurtzeko ekipoei buruz jasotzen diren berezitasunei, elementu horiek berebiziko garrantzia dutena aintzat harturik, kontsumoa kontrolatzeko eta kuantifikatzeko oinarritzko tresnak direnez gero.

3. Urez hornitzeko kontratuak formalizatzeko, beharrezkoa izango da dena delako higiezin, etxebizitza edo lokalaren barruko instalazioa unean-unean indarrean dauden arabera egokituta egotea; horren haritik, nahitaezkoa izango da horniduraren eskatzaileak esandako baldintzak egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztea, erakunde eskudunak emanda.

4. Dagokion administrazio batzarrarekiko eta/edo URBIDE ez den partzuergo edo kudeatzaile batekiko hornidura eta kontratua dituzten instalazioei dagokienez, ez da indarrean dauden arauen arabera egokituta dagoela egiaztatzeko ziurtagiririk aurkeztu beharko, Kasu berezietan izan ezik (esaterako, konpondu beharreko anomaliaren bat antzematen duenean Partzuergoak).

30. artikulua – Barne instalazioak aldatzea

Urez hornitzeko zerbitzuaren erabiltzaileek Partzuergoari jakinarazi beharko diote barruko instalazioen antolaera edo ezaugarrietan egiten duten zeinahi aldaketa, kontagailuaren kokalekuari eta eskatutako emarien kontrolari eragiten badiete.

31. artikulua – Ikuskatzeko ahalmena

1. Partzuergoak barruko instalazioak ikuskatu ahaliko ditu. Barruko instalazioak arauzko baldintza teknikoak beteko ez balitu, Partzuergoak erabiltzeari jakinaraziko dizkio antzemandako anomaliak, ondorio horretarako ezartzen den epearen barruan konpon ditzan.

2. Epea amaitutakoan, Arauz kanpoko egoerak iraungo balu, Partzuergoak horren berri emango dio erakunde eskudunari eta, erakunde horrek bidezkotzat jotzen badu, erabiltzaileak hutsuneak konpontzeko betebeharra izango du ezarritako epearen barruan.

Erabiltzaileak aurreko lerroaldean ezarritakoa betetzen ez badu, Partzuergoak hornidura eten ahaliko du.

4. Artikulu honen aurreko ataletan araututako kasuetatik at, Partzuergoak erabiltzailearen eskariz egiten dituen ikuskapenak edo, hala badagokio, erabiltzailearen egitez edo ez-egitez

gauzatutakoak, oinarririk gabekoak balira, sorrarazten dituenaren kargurakoak izango dira eta, hortaz, zerga ordenantzan ezarritako tasa ordainaraziko zaio.

5. Zerbitzua jasotzeko eskaera egiten bada, Partzuergoak interesdunen barruko instalazioa ikuskatuko du, betiere erabiltzaileek adierazten badute kontagailua instalaturik daukatela onibarraren barruan. Kasu horietan, neurgailuaren funtzionamendua eta kontsumo maila erregistratu eta igortzeko ahalmena egiaztatuko dira, Partzuergoak berariaz onartuta dituen sistemen bidez.

Baja eskaeretan, Partzuergoaren iritziz, kontagailua kentzea bidezkoa ez den kasuetan –barruko instalazioa urruneko irakurketa guneen barruan dagoelako–, instalazioaren ikuskapena egingo da.

Zerbitzu horiek ondoko tasak sortuko dituzte, zerga ordenantzan ezarritakoari jarraiki: “Muntatzea eta desmuntatzea” eta “Kokaleku aldaketa eta ikuskapena”

LAUGARREN ATALA. NEURTZEKO EKIPOAK

32. artikulua – Definizioa, kokalekua, motak eta ezaugarriak

1. Kontagailu bidez neurtuko da horniduraren ziozko ordainketa kalkulatzeko kontsumoa, eta bitarteko horrek, ez besterik, egiaztatuko du kontsumoaren neurketa.

2. Kontagailudun horniduretan, kontsumoari dagokionez, gailuaren beraren ahalmena beste mugarik ez daukan tresna batek adierazten du horretatik barrena joan den uraren bolumena.

3. Oro har, kontagailuak lursailen sarreran jarriko dira, leku irisgarrietan eta Partzuergoak homologaturiko erregistroetan edo, bestela, Partzuergoak homologaturiko sarraila duten gela irisgarrietan.

4. Eraikin bakoitzaren barruko instalazioaren ezaugarri bereziak direla eta, urez hornitzeko zerbitzua banakako kontagailu bidez edo kontagailu orokorraren bidez eman ahalko da.

a) Banakako kontagailuek erabiltzaile bakoitzaren kontsumoa neurtzen dute, etxebizitza edo lokal bakoitzeko. Banakako kontagailuak eraikinaren kontagailuen baterian jarriko dira.

b) Kontagailu orokorrak eraikin jakin batean izan diren etxeko kontsumoen guztizkoa neurtzen du.

5. Nolanahi ere den, eraikinetan dauden merkataritzako lokalek edo saltokiek hornidura berezia izan behar dute, kontagailu orokorraren aurrekoa (kontagailu orokorrik egonez gero). Lokalen kontagailuak ere eraikinaren baterian jarriko dira.

6. Indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, Partzuergoak zehazten dituen ezaugarri teknikoak izan behar dituzte kontagailuek. Era berean, Partzuergoak adieraziko du neurtzeko tresnari egokienak zein diren eta non jarri behar diren.

33. artikulua – Kontagailuen ezaugarri teknikoak

Kontagailuek Europar Batasunaren araudia bete beharko dute –horrek ez die kalterik egingo araudi horren mendean ez dauden gailuei, modeloaren homologazio data dela eta– eta horien ezaugarri teknikoak ondokoak izango dira:

1. Onartutako errorerik handienak

Funtzionamenduaren baldintza izendunetan eta asaldurarik ezean, neurketaren errorea ezin izango da onarturiko errorerik handienaren balioa baino handiagoa, ondoan azaltzen den eran:

Trantsizio emariaren (Q2) (hura ere aintzat hartuta) eta gailuaren emariaren (Q4) artean hornitzen diren bolumenei dagokienez, onarturiko errorerik handiena, positiboa edo negatiboa, hauxe da:

% 2koa, 30 °Cko tenperaturan dagoen urarentzat,

% 3koa, 30 °Ctik gorako tenperaturan dagoen urarentzat.

Gutxieneko emariaren (Q1) eta trantsizio emariaren (Q2) (hura kontuan hartu gabe) artean hornitzen diren bolumenei dagokienez, onaturiko errorerik handiena, positiboa edo negatiboa, ehuneko 5ekoa da, uraren tenperatura gorabehera.

2. Definizioak eta Terminologia

a) Hornitutako bolumena, "V": Kontagailutik zehar doan uraren guztizko bolumena da, bolumen horren igaraldiaren denboran. Bolumena metro kubiko edo litrotan adierazten da eta denbora, berriz, ordu, minutu edo segundotan.

b) Gutxieneko emaria (Q1): Onaturiko errorerik handienaren eskakizunak direla eta, emari hori dugu ur emaririk txikiena kontagailuak argibideak eman ditzan.

c) Trantsizio emaria (Q2): Trantsizioko ur emaria dugu gutxieneko emariaren eta emari iraunkorraren artekoa. Balio horretan, emariaren balioa bi aldetan banatzen da, «goialdea» eta «behealdea». Alde bakoitzari onaturiko errorerik handien bereizgarriena dagokio.

d) Emari iraunkorra (Q3): Erabilera arrunteko baldintzetan, hau da, jario egonkor edo aldi-zkakoaren baldintzetan, ur kontagailua modu egokian ibil daitekeen ur emaririk handiena da.

e) Gainkarga emaria (Q4): Gainkarga emaria dugu ur kontagailua aldi labur batean eta modu egokian, kalterik hartu gabe, ibil daitekeen ur emaririk handiena.

34. artikulua – Kontagailu orokorra

1. Kontagailu orokorra babes eta maniobrak giltzekin batera instalatuko da lurraerakiko plano paraleloan, armairu edo ganbera baten barruan, elementu horien guztien maniobra, mantentze eta aldatze eragiketarako egiteko moduan, hornitzen den onibarrera sartzeko atariaren edo itxituraren ondoan eta, nolana ere den, bide publikotik zuzenean iristeko moduan.

2. Higiezin batean, presio ekipoak, andelak, berokuntza sistemak edo ur beroko zerbitzuak daudenean, kontagailu orokorra jarriko da.

Kontagailua gordetzeko armairua edo ganbera guztiz iragazgaitza izango da eta estolde-riarako zuzeneko hustubidea izango du, jartzen den harguneak ematen duen gehienezko ur emaria husteko gai dena. Era berean, Partzuergoak homologaturiko ate-sarrailak izango ditu.

4. Familia bakarreko etxe, merkataritzako pabilioi edo industriako pabilioientzako hornidurari gagozkiola, kontagailua itxiturako hormaren kanpoaldean edo lursailera sartzeko muga edo, bestela, galtzadan dagoen kutxatilan instalatu behar da, honako artikulua honetan jasotako baldintzei jarraiki eta Partzuergoak araututako instalazioen arabera.

5. Lokalen bat hornitzeko helburuz, eraikineko hargune orokorra ez, beste bat beharko balitz, kontagailua kanpoko irispidea daukan kutxatila edo armairu batean gordeko da, Partzuergoak ezarritako baldintza teknikoaren bat etorritik.

6. Eraikin batek sare orokorretik bereizitako hargune bidez hornitutako zerbitzua daukanean, kontagailua jarriko da instalazioan.

7. Era berean, higiezin baten ur hornidura bereizia behar duten jarduerak eta/edo erabilera bereziak garatzen direnean, erabilera bakoitzari dagokion kontagailua jarriko da.

8. Nolanahi ere, kontagailu orokorrak instalatzeko baldintzetan, Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezarritako betekizunak eta aplikagarriak diren gainerako manuetako ezarritakoak bete beharko dira.

35. artikulua – Banakako kontagailuen bateria

1. Banakako kontagailuen bateriak xede hori besterik ez duten lokal edo armairuetan jarriko dira, higiezinaren beheko solairuan, erabilera komuneko eremu batean, eta sarrerako ataritik sarbide zuzena izango dute.

2. Erakunde eskudunak homologaturiko modelo eta motatakoak izango dira kontagailuen bateriak.

3. Gorako hodi bakoitzaren abiapuntuan eta haren eta banakako kontagailuen arteko lotu-nean, atxikipen balbula bat jarriko da, ura banaketa sarera itzultzea galarazteko.

36. artikulua – Lokalen ezaugarriak banakako kontagailuen bateria kokatzeko

1. Kontagailuen bateriak kokatzeko lokalen garaiera, gutxienez, 2,5 metroko izango da. Beste alde batetik, zabalerari dagokionez, 0,60 metroko espazio librea egon beharko da bateriaren alde banatan eta 1,20 metroko bateriaren aurrean, kontagailuak eta maniobra giltzak ere instalatuta daudela.

2. Lokal horien hormak, sabaia eta zorua iragazgaitzak izango dira, hezetasunik ez hedatzeko ondoko lokaletara.

3. Mota horretako lokaletan, hustubidea izango da eta bateriatik eratorritako hodiren batek eman dezakeen gehieneko emariaren besteko huste ahalmena izango du, ura berez jariotzen bada.

4. Argiztapen artifiziala izan behar dute, gutxienez, 100 lux-ekoa zorutik metro betera dagoen plano batean.

5. Sartzeko atea, gutxienez, 0,80 m x 2,05 metroko dimentsioa izan behar du, lokalaren kanpoalderantz zabalduko da, hezetasunik ezin kaltetuzko materialez eginda egongo da eta Partzuergoak araututako sarraila batez horniturik egongo da.

6. Higiezinaren jabeak edo jabeek garbi eduki beharko dituzte kontagailuak kokatzen direneko lokalak; hala, kontagailuak jabeen erantzukizun eta ardurapekoak izango dira.

Beste alde batetik, lokalak ezin izango dira besterako erabili, hala nola trasteleku gisa edo zaborra biltzeko edukiontzia gordetzeko leku gisa baliatzeko.

7. Honako ordenantza hau indarrean hasten den egunean, agirian galdatzen diren eskakizun oro betetzen ez dituzten lokalek, gehienez ere, hiru urteko epea izango dute ezaugarri horietara egokitzeko. Dena dela, egokitzapena nahitaez egin beharko da beste zerbitzu bat onartzen denean edo lehendik ematen zen zerbitzu baten aldaketa onartzen denean.

37. artikulua – Armairuen ezaugarriak banakako kontagailuen bateriak kokatzeko

1. Kontagailuen bateriak armairuetan gordetzen badira, armairuon tamaina nahikoa izango da 0,5 metroko espazio librea uzteko bateriaren edo baterien alde banatan eta 0,20 metroko espazio librea uzteko atearen barruko aldearen eta atetik hurbilen dauden elementuen artean.

2. Lokalei ezarritako gainerako baldintzak ere bete beharko dituzte; hala eta guztiz ere, armairuen ateen tamainaz den bezainbatean, zabalik daudela, agerian geratzen den baoan, bateriak, neurtzeko ekipoak eta maniobra gailuak ikusi behar dira.

3. Armairuak kokatzeko moduari dagokionez, armairuen aurrealdean (armairuaren guztizko luzera kontuan hartuta, metro beteko espazio librea egon behar da.

4. Lokalak edo armairuak diren, leku esanguratsu batean eta argiro ikusteko moduan, koadroa edo eskema bat jarriko da. Eskema ezabatuezin horretan, gorako hodiekin eta baterien irteerek behar bezala adierazita egon behar dute, bai eta horietako bakoitza zein etxebizitzari eta/edo lokali dagokion.

38. artikulua – Kontagailuaren jabetza

1. Urez hornitzeko kontratu berriak formalizatu ondoren, hornidura gunean instalatzen diren edo zerbitzuan dauden kontagailu guztiak erabiltzaileen jabetzakoak izango dira.

Kontagailuetan instalaturiko irratik igorleak, berriz, Partzuergoarenak izango dira.

2. Hornidura kontratatzen denean, erabiltzaileek jabetzan zituzten lehengo kontagailuak Partzuergoari emateko eskubidea dute. Eskubidea egikaritzeko, ordea, erabiltzaileak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

a) Era ofizialean homologaturiko kontagailua izatea eta Partzuergoak zehazturiko gutxieneko ahalmen metrologikoa izatea, honako ordenantza honetan ezarritakoari jarraiki.

b) Gailua guztiz bateragarria izatea eta Partzuergoak emandako zerbitzuaren kokalekuan hartu duen urruneko irakurketa sisteman txertatzeko egokituta egotea.

c) Erabiltzaileak kontagailua eta, harekin batera, kontagailuan bertan dagoen irrati modulua ematea; izan ere, kontagailuak eta irrati igorleak osaturiko multzoa banaezina da eta irakurketan erabiltzen metodologia mugarrituko du.

3. Instalaturik dauden kontagailu gehien-gehienetan, Partzuergoak onaturiko gutxieneko ahalmen metrologikoak ondokoak dira:

a) Gehenez ere, 100 milimetrorainoko diametro izendatua duten kontagailuen Ratioa, 'R', 160koa edo handik gorakoa izango da; lido horretan, R ur emari iraunkorraren, 'Q3', eta gutxieneko ur emariaren, 'Q1', arteko zatidura izango da, honako ordenantza honetan zehazten den moduan. Multzo horren kidekoak dira Metrologiako 'C' motan sailkatutakoak, Kontseiluaren 75/33/EEE Zuzentarauak eta horrekin bat datorren araudiak ezarritakoari jarraiki.

b) 100 milimetrotik gorako kalibreei gagozkiela, Metrologiako 'C' motakoak edo handik gorakoak izango dira.

c) Suteen aurkako instalazioetan jartzen diren kontagailuak ez-intrusiboak izango dira.

d) Kasu berezietan, betiere Partzuergoak aurretiazko eta berariazko baimena emanda, aurreko lerroaldeetan deskribaturiko prestazio metrologiko apalagoak dituzten kontagailuak instalatuko dira.

39. artikulua – Kontagailurik gabeko hornidura

Kontagailurik ez duten harguneetan, Partzuergoak kontagailua instalatuko du erabiltzailearen kargura, espediente egokia izapidetu baino lehen; espediente horretan, kontagailua emateko aukera eskainiko zaio.

40. artikulua – Kontagailuaren mantentze tasa

1. Kasu guztietan, Partzuergoak ikuskatuko ditu kontagailuak eta horien mantentze lanak egingo ditu eta, zerbitzu horren zioz, indarrean dagoen tasa sortuko da, zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera. Guztiaz ere, Partzuergoak nahi beste aldiz ikuskatu ahalko ditu kontagailuak eta bidezko konponketa guztiak egin ahalko ditu.

2. Partzuergoak aldatu edo konponduko ditu baliogabeturiko edo matxuraturiko kontagailuak –bai eta datuak erregistratzeko eta komunikatzeko elementuak ere– erabilera arruntaz besteko arrazoiengatik. Hala ere, eragiketen zenbatekoa ordain dezala eskatu ahalko dio erabiltzailearen erabilera oker, manipulazio, edo bortxazko ekintzengatik

41. artikulua – Kontagailua egiaztatzea

1. Kontagailua nahitaez egiaztatu beharko da ondoko kasuetan:

a) Kontagailuaren neurketa tresnei eragin dien konponketa bat egin ondoren.

b) Erabiltzaileek eskatzen duten guztietan, Partzuergoak irakurketa akatsak, itxurazko edo ezkutuko ihesak edo kontagailuak identifikatzeko akatsak baztertu eta gero. Baldintza horietan, zerga ordenantzan ezarritako tasak sortuko dira.

2. Erabiltzaileen kontsumoen kontrola egiten duten kontagailuen funtzionamenduaren inguruko erreklamazioak direla eta, administrazio eskudunek ezarriko dituzte kontagailuen funtzionamendu okerra ebazten duten onarturiko errorerik handienak.

3. Aurreko artikuluan deskribatu eta laborategi homologatu batek egindako txostenean jasotzen den egiaztapenaren emaitzaren berri emango zaio erabiltzaile eskatzaileari eta, hala badagokio, honako ordenantza honetan ezarritako muga eta prozedurari jarraiki, neurketa akastunen ziozko likidazioak zuzendu eta subjektu pasiboak ordaindutako egiaztapen tasaren zenbatekoa itzuliko zaio.

4. Edozein kasutan, Partzuergoak zainduko du laborategiak egiaztatzen eta itzultzen duen duen kontagailua eta ez zaio interesdunari itzuliko, ezpada, eskatzaileak espedientearen ebazpenak adierazitakoarekin ados dagoelako eta Partzuergoaren aurkako ekintzei uko egingo die-lako adierazpena sinatzen badu. Horrek ez dio kalterik egingo ENAC erakundeak ziurtatutako laborategi batean bigarren egiaztapena egiteko aukerari, erabiltzailearen kargura.

42. artikulua – Kontagailua zigilatzea

Kontagailuaren funtzionamendua bermatzen dutela eta, erabat debekatuta dago fabrikatzaileek edo Partzuergoak, instalatzean edo konpontzean, kontagailuei –eta datuak erregistratzeko nahiz komunikatzeko elementuei– jarritako zigiluak apurtzea edo hondatzea.

43. artikulua – Kontagailua aldizka berritzea

1. Urbide Ur Partzuergoak kontagailuen mantentze lana eta aldizka aldatuko ditu, irakurtzeko gailuen egoera eta funtzionamendu ona bermatzeko, betiere, aplikagarria den metrologiari buruzko legeriak onartutako mugen barruan.

2. Neurtzeko ekipoa konpondu behar denean, apurtu delako edo funtzionamendua okerra delako, Partzuergoak beste equipo bat emango dio erabiltzaileari, jatorrizkoaren ordeztu.

44. artikulua – Kontagailua ordeztea

1. Neurtzeko ekipoen dimentsioa atzemandako kontsumoak behar besteko zehaztasunez kontrolatzeko egokia ez bada, neurtzeko ekipoa berria instalatu beharko da, erabiltzen diren kontsumoekin bat, eta Partzuergoak ekipoa zaharra ordeztu ahal izango du.

2. Erabiltzaileak ekipoa aldatzeko eskatzen duenean, horniduraren erabileraren beharrezko kariaz, kontzeptu guztien zioz sortzen diren gastuak eskatzailearen konturakoak izango dira.

3. Uraren hornidura hainbat instalazio –hala nola etxeko ur beroa, berokuntza, aire giro-tua...– batera darabiltzan sistema batean txertatzen bada, erabiltzailearen ardurapekoak izango dira bertako elementuak maneiatu, zaindu, mantendu, konpondu eta ordezteko eragiketak.

4. Erabiltzailearen ardurapekoak edo, bestela, ur horniduraren zerbitzua baliatzen duen onibarraren jabearen ardurapekoak izango dira goian aipaturiko sistema konbinatuak honako ordenantza honetan eta horrekin bat Odatosen gainerako arauetan ezarritako eskakizunetara egokitzeko behar diren moldaketa guztiak. Horiek horrela:

a) Instalaturiko ur kontagailuak Partzuergoak ezarritako modeloetakoak izango dira, ezau-garri metrologiko egokiak izango dituzte eta tokian-tokian ezarrita dituen irakurketa sistemekin (urrunekoak izan ala ez) erabat bateragarriak izango dira.

b) Partzuergoak zuzeneko esku hartzea izango du kontagailuak instalatzeko, erakundeak onar-turiko beste gailu batez aldatzeko, konpontzeko muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketetan, inolako kalterik sorrarazi barik barruko instalazio konbinatuan, instalazioaren erabilgarritasu-nean edo kontsumoak banatzeko barruko sisteman.

45. artikulua – Kontagailua muntatzea eta desmuntatzea

1. Partzuergoak edo Partzuergoak zeregin horietarako kontratatzen dituen enpresek bakarrik muntatu eta desmuntatu ahalko dituzte kontagailuak eta datuak erregistratzeko nahiz komunikatzeko elementuak; eragiketa horiengatik, zerga ordenantzan ezarritako ordainarazpenak sortuko dira.

2. Salbuespenez, erabiltzaileak eragiketa hori egitea izango du Partzuergoak berariazko baimena ematen badio aurretiaz.

3. Kontagailuak muntatu egingo dira zerbitzuak kontratatzen direnean edo kontagailuak ordeztu behar direnean, kontratuko baldintzak aldatu direlako.

4. Kontagailua desmuntatzen denean, zerbitzu kontratuaren azkentzea izapidetuko da, kontagailua, erregistroko eta komunikazioko elementuak bertan utzi behar direnean izan ezik.

46. artikulua – Kokapena aldatzea

1. Kontagailuaren instalazioaren kokapenari eragiten dion edozein aldaketa edo erreforma egiteko edo kontagailua maneiatzeko, Partzuergoak baimena eman beharko du idatziz.

2. Kontagailua lekuz aldatzeagatiko gastuak kokapena aldatzeko eskatu duen alderdiaren konturakoak izango dira beti eta, hala badagokio, zerga ordenantzan ezarritako ordainarazpena sortuko da. Hala eta guztiz ere, kontagailuaren kokapena gailua akastuna delako edo egoki ez dabilelako aldatu behar bada, sorturiko gastua erabiltzailearen konturakoa izango da.

47. artikulua – Egiatzapenaren ziozko likidazioa

1. Erreklamazio baten ondorioz, erakunde eskudunak kontagailua egiaztatu eta frogatzen baldin bada kontagailua ibili ohi dela baimenduriko errore positiboa baino handiagoa duela, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da, kontagailu berria instalatu eta hurrengo hogeita hamar egunetan neurturiko kontsumoen bidez, likidazioak aintzat hartu behar dituen hilabeteetan indarrean zeuden tarifen arabera.

2. Aurreko lerroaldean jasotzen den atzeraeraginezko aldia ez da inola ere sei hilabetetik gorakoa izango.

3. Partzuergoak egokitzen jotzen duenean edo erabiltzaileak eskatzen duenean egingo dira kontagailua egiaztatze probak.

Azken kasu horretan, ekipoa behar bezala badabil, prestazio horren ondorioz sorturiko gastuak eskatzailearen konturakoak izango dira eta, besteak beste, zerga ordenantzan ezarritako egiaztapen tasari dagokion tarifa ordaindu beharko du.

Hala ere, erabiltzaileak berak laborategi bati edo enpresa ziurtatu bati eskatu ahalko dio egiaztapena egiteko eta, gero, Partzuergoari bidali. Azkenean, espediente egokia izapidetuta, erabiltzaileak emandako neurketak edo egiaztapenak Partzuergoaren zerbitzu teknikoek egingakoak baino zuzenagoak eta zehatzagoak balira, Partzuergoak ordainduko beharko lituzke egiaztapenen gastuak.

Ondorio horietarako, kontagailua behar bezala dabilela ulertuko da onarturiko errore marginen barruan dabilenean.

48. artikulua – Kontagailuaren gaineko erantzukizuna

Erabiltzailearen betebeharrak eta ardurapekoak dira kontagailua jagotea; Partzuergoaren ardurapekoak dira, berriz, behar bezala mantentzea, muntatzea eta desmuntatzea.

IV. KAPITULUA - ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

*LEHEN ATALA. HORNIDURA OINARRIZKO SAREAN.***49. artikulua – Ura oinarrizko sarean hornitzeko kontratua. Izapidetzea**

Jardueraren ezaugarriak direla eta, sareko hornidura altan behar duten enpresa, erakunde eta entitateek ondoko izapideak egin beharko dituzte hornidura zerbitzua kontratatzeko:

a) Horniduraren aurretiko eskaria; bertan, aurreikusitako puntako emaria edo gehieneko emaria adieraziko da.

b) Eskaria dela eta, Partzuergoaren zerbitzu teknikoek eta ustiapen zerbitzuek aurretiko txostena egingo dute. Txosten horretan, hargunea non egin behar den zehaztu da eta loturako instalazioek bete beharreko baldintzak jasoko dira eta, hala badagokio, instalazio hartzaileek bete beharrekoak, bai eta proiektua idazteko kontuan hartu behar diren jarraibideak ere.

c) Behin betiko eskabidea eta proiektuaren bi ale; hala badagokio, dena delako elkargoak ikusonetsita aurkeztu beharko da proiektua. Eskatzailea bi erabiltzaile edo gehiagoren elkar-tea bada, eskabidearekin batera, erabiltzaileek sinaturiko adostasun agiria edo kontratua ere aurkeztu beharko da.

d) Hala dagokionean, Partzuergoaren presidentek onarturiko lehen mailako sarearen hornidura, zerbitzu teknikoek aurretiko txostena jaso ondoren. Txosten horretan, nolnahi den ere, aurretiaz bete beharreko baldintzak jaso dira.

e) Partzuergoaren zerbitzu teknikoek aldeko txostena, egin beharreko lan eta instalazioen ingurukoa.

f) Kontratuaren formalizazioa.

Partzuergoaren zerbitzu teknikoek kudeatuko dituzte atal honetan azaldutako lehen mailako sarearen ur hornidura kontratatzeko espedientearen izapideak eta hurrengo artikuluan deskribatzen diren udaleko edo kontzejuko hargune berriak egokitzeko izapideak.

50. artikulua – Hargune berriak oinarrizko sarean partzuergoko kide diren udal eta kontzejuentzat

Partzuergoaren presidentek onartu beharko ditu hargune berriak oinarrizko sarean partzuergoko kide diren udal eta kontzejuentzat, bakar-bakarrik hornidura altan jasotzeko eta, beraz, uraren ziklo integrala kudeatzeko ez.

Ilido horretan, Partzuergoaren zerbitzu teknikoek eta ustiapen zerbitzuek txostena egin beharko dute eta, bertan, hargunea egiteko baldintzak zehaztuko dituzte.

Udal edo kontzeju eskatzaileak proiektua idatzi, lurzorua kudeatu eta lanak kontratatu eta gauzatu beharko ditu.

Partzuergoak, berriz, hala eskatuz gero, hari dagokion laguntza teknikoa emango du, partzuergoko kide diren erakundeentzako laguntzaren ohiko jarraibideak aintzat harturik.

51. artikulua – Behin behineko ur harguneak lehen mailako sarean

1. Oro har, lanetan edo beste erabilera batzuetan, ez da behin-behineko edo aldi baterako adarrik eta/edo zuzeneko hargunerik egokituko Partzuergoaren lehen mailako hornidura sarean. Aukera hori bakarrik onartuko da beste irtenbiderik ez dagoenean edo hargunea era teknikoan ezin egokitu daitekeenean banaketa sareen bitartez.

2. Adarra edo behin-behineko hargunea lehen mailako sareko hodi batetik egin behar denean, eskatzaileak Partzuergora jo beharko du, behin-behineko hargunea eskatu eta hargunearen oinarrizko ezaugarrien berri eman beharko du.

3. Geroago, Partzuergoak bideratu eta koordinatuko du izapidea.

4. Partzuergoak, lehen mailako sarean egin beharreko eragiketaren eragina kontuan hartuta, aukerarik bideragarriena zein den aztertuko du eta eskatzaileari jakinaraziko dio; hala berean, jarduketa horri lotutako baldintza teknikoen berri emango dio.

5. Beste alde batetik, Partzuergoak jarduketa horri buruzko txostena egingo du, behin-behineko hargunearen kontratua formalizatzeko.

6. Hargunea instalatzeko lanak eskatzailearen konturakoak izango dira, beti ere Partzuergoak ikuskaturik.

Instalazioa zerbitzuan jarriko da Partzuergoak baimena ematen duenean, lanak egokiak direla egiaztatu, kontratua formalizatu eta hargunea irakurketa kudeatzeko sisteman erregistratu ondoren.

7. Eskatu den behin-behineko hargunearen xede izan den jarduketaren epea amaitzen denean, eskatzaileak Partzuergoari jakinaraziko dio eta erakundeak hargunea ixteko edo kentzeko lanak ikuskatuko ditu. Bestalde, eskatzaileak hargunea osatzen duten elementu guztiak Partzuergoari lagako dizkio.

8. Era berean, behin-behineko hargunea eten dela jakinaraziko da, hornidura kontratua azkentzeko helburuz.

52. artikulua – Oinarrizko sareari lotutako erabiltzaile taldeen berezitasunak

1. Lehen mailako sarearen bi erabiltzaile edo gehiago elkartzen badira, lan eta instalazio guztiei dagokien proiektua onartu baino lehen, Partzuergoak onartu beharko du 49. artikulua c) atalak jasotzen duen agiria edo kontratua onartu beharko du.

2. Lehen mailako sarearen erabiltzaile taldeek edo elkarteek sinatzen duten agiriak edo kontratuak, ezinbestean, honako alderdi hauek guztiak jaso behar ditu:

a) Agertutako alderdiak.

b) Lanen azalpena, kontratazioa, zuzendaritza, gauzapena eta ordainketa.

c) Bide zortasunak, desjabetzeak eta sortzen diren bestelako eraginak zein loturak elkarrearen hornidura bermatzeko.

d) Emarien banaketa eta neurketa.

e) Instalazioen jabetza eta erabiltzeko zein mantentzeko baldintzak.

f) Balizko erabiltzaile berriak edo elkartutako erabiltzaileen emariaren aldaketak.

3. Halko kasuetan, gainera, elkarteko kide bakoitzaren adarrea neurgailu bat jartzeko eskatuko da, hau da, instalazio hartzaileetan, eta beste bat instalazio erkidean, hots, loturako instalazioen barruan, hodiaren hasieran.

BIGARREN ATALA. HORNIDURA BIGARREN MAILAKO SAREAN

53. artikulua – Ur harguneeen emakida

1. Obra lizentzia emateko prozeduran, eman baino lehen, udalek nahitaezko txostena eskatuko diote Partzuergoari eta azkenak hargunearen baldintzak ezarriko ditu, hargunea ematea badago.

2. Partzuergoak harguneeen emakida emango die ardura hori duten erakundeei, obra lizentzia aurkeztu eta gero.

3. Tokiko sareak zuzenean kudeatzen dituzten udalek/kontzejuek Partzuergoari bidaliko dizkiote emandako obra lizentzien kopia; beste alde batetik, obra lizentzian, adierazi beharko da hornidura kontratua Partzuergoarekin izapidetu behar dela ezinbestean.

Kasu horietan, ur sarean txertatzeko obrak hasi baino lehen, sustatzailea, instalatzailea edo baimendutako pertsona udal/kontzejura joango da eta Partzuergoarekin sinatutako hornidura kontratua aurkeztuko du.

4. Ur hornidura higiezinan bertan egiaztatuko da, kontratatu den erabilerari erreparaturik. Horren ondorioz, zenbait eraikin edo higiezin mugakide jabe berarenak badira ere edo errentari edo maizter berak erabiltzen baditu ere, zeinek bere hornidura izango du eta urez hornitzeko kontratuak bereiz izenpetuko dira.

5. Urez hornitzeko harguneen emakidak ematen direnean, eskatzaileak zerga ordenantzan ezarritako tasa ordaindu beharko du.

54. artikulua – Ur harguneak kontratatzea

1. Urez hornitzeko harguneen kontratazioa Partzuergoaren esku dagoenean, interesdunak eskatu beharko du eta, horretarako, eredu egokia erabili beharko du.

2. Eskabidearekin batera, ondoko agiriak edo baimenak aurkeztu beharko dira:

a) Obra lizentzia edo esleipenaren agiria obra publikoa denean.

b) Kokapen planoak.

c) Iturgintza planoak, bidezkoa bada.

3. Era berean, eskabidearen agiri normalizatuan, harguneari lotutako kontratua formalizatzeko aurkeztu behar diren gainerako agiriak agertuko dira. Kasuan-kasuan, ondokoak dira agiriak:

a) Jabetza eskriturak.

b) Zangak zabaltzeko lizentzia.

c) Jarduera lizentzia.

d) Lursail pribatuetatik igarotzeko baimena.

e) Beste erakunde batzuen eskumeneko zerbitzu eragindakoei buruzko txostena (gasa, telefonoa, argindarra, komunikazioa...).

4. Aurreko eskakizunak bete ondoren, kontratua formalizatuko da, hargunea gauzatzeko nahiz kontsumoa kontrolatzeko, bigarren mailako sarearen erabiltzaile gisa.

55. artikulua – Hornidura kontratatzea

1. Hornidura kontratu edo poliza egokiaren bidez formalizatuko da. Alde batetik, Partzuergoak izendaturiko kideak sinatuko du kontratuan eta, bestetik, zerbitzuaren hartzaile den higiezin, lokal, etxebizitza edo eremuaren jabeak, zergadunaren partez.

Jabeak ahalbidetu dezake beste erabiltzaile batek zerbitzua eskatu eta sina dezan, hala zerbitzuaren hartzaile den higiezin, lokal, etxebizitza edo eremuaren errentariak, nola esandakoen gaineko legezko okupazio eskubidea duenak. Nolanahi ere, bigarren kasuan, sinatzailea ez dago salbuetsita zergadunaren ordezkari dagozkion betebeharretatik, eta Partzuergoak harengana jo dezake tasen likidazioa ordain dezan.

Hala eta guztiz ere, jabeak nahiz errentariak edo legezko okupatzaileak, ondorio horietarako, zuzenean edo, Zuzenbidean baliaigarria den zeinahi bide erabiliz, haiek ordezkatzeko dituen pertsonaren bidez jardun dezakete.

2. Kontratazioak indarra izango du formalizatzen den datatik aurrera.

3. Partzuergoak eskatzaileekiko kontratua egingo du beti, baldin eta higiezinaren instalazioak ohiko funtzionamendua bermatzeko moduan badaude. Bestela, kontratuaren indarraldia eten egingo da, instalazioak egoera onean izan arte.

4. Orokorrean, kontratua sinatu zuen pertsonak ez, beste batek lokal bera okupatzen badu, beste kontratazio bat egin behar da eta kontratuari datxezkion betekizun formal eta ekonomikoak bete beharko dira, honako ordenantza honetan arautzen diren subrogazio kasuei kalterik egin gabe.

5. Zerga araudia aplikatuta, hornidura kontraturik ez egon arren, erabilitako kontsumoen zioz sortzen diren tasak likidatu egingo dira.

56. artikulua – Erabiltzaileek aurkeztu beharreko agiriak bigarren mailako sarearen zerbitzua kontratatzeke

1. Edateko uraren hornidura bigarren mailako sarearen bidez emateko, interesdunak eskatu beharko du eta, ondorio horretarako, kontratu egokia formalizatu beharko du, Partzuergoak ezarritako ereduaren arabera. Eskatzaileak kontratuan adierazten dituen datuen gaineko erantzukizuna hartuko du.

2. Eskatzailea zerbitzuaren hartzaile den higiezin edo eremuaren jabea edo errentaria dela egiaztatzen duen agiriaz gain eta Udalak edo Administrazio Batzarrak dena delako udalerrri edo kontzejuan eskatzen dituen agiriez gain, ondoko agiriak ere aurkeztu beharko dira:

a) Eraikuntza berrientzako obren behin-behineko hornidura.

1. Kontratatzailearen NAN edo IFZ.

2. Udalak emandako obra lizentzia edo esleipenaren ziurtagiria, erakunde ofizialen eskariz hartutako obrak direnean.

3. Erakunde eskudunak prestatuturiko instalazio agiria.

4. Edateko uraren banaketaren kudeaketa Partzuergoari eman dioten erakundeei dagokionez, obra lizentziaz gain, Partzuergoak berak emandako agiria aurkeztu beharko da, zerbitzuari nondik lotu behar zaion adierazita.

b) Merkataritzako lokal, industria eta nekazaritzako jarduerentzako hornidura.

1. Kontratatzailearen NAN edo IFZ.

2. Salerosketa eskritura edo errentamendu kontratua.

3. Higiezinak OHZren erroldan daukan zenbaki finkoa.

4. Erakunde eskudunak prestatuturiko instalazio agiria, lehen okupazioa bada edo instalazioa aldatu bada. Instalazio agiria lokal bakoitzeko aurkeztu beharko da.

5. Udalaren jarduera lizentzia edo, bidezkoa bada, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa.

c) Lehen okupazioko etxebizitzentzako hornidura.

1. Kontratatzailearen NAN edo IFZ.

2. Lehen okupazioaren lizentzia, dagokion udalak emanda.

3. Higiezinak OHZren erroldan daukan zenbaki finkoa.

4. Erakunde eskudunak prestatuturiko instalazio agiria.

d) Bigarren okupazioko etxebizitzentzako hornidura.

1. Kontratatzailearen NAN edo IFZ.

2. Salerosketa eskritura, errentamendu kontratua edo okupatzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

3. Higiezinak OHZren erroldan daukan zenbaki finkoa.

3. Honako ordenantza honen 13.3 artikuluan araututako inguruabarretan, saneamenduko zerbitzuaren banako erabiltzaileek zerbitzua jasotzeko kontratua formalizatuko dute Partzuergoarekin. Horretarako, isurtzeko baimena aurkeztu eta identifikazio eta titulartasun datuak eta, kasuan-kasuan, obra lizentzia, lehen okupazio eta jarduerari dagozkion datuak emango dituzte, artikulua honen aurreko atalean jasotako baldintzei jarraiki.

57. artikulua – Zerbitzuaren kontratuaren eredia

1. Hornidura kontratua da horniduraren emakida sinesgarritasun osoz eta ondorio guztietarako egiaztatzen duena. Gainera, agiri horrek eta zerbitzuari buruzko ordenantza honek Partzuergoaren eta erabiltzailearen arteko harremanak arautuko eta arteztuko dituzte.

2. Legez onartzen den bideren bat erabiliz, erabiltzaile eskatzailearen esku jarriko da kontratuaren formalizazioa egiaztatzen duen dokumentazioa. Hornidura kontratuak, gutxienez, ondoko datuak ekarriko ditu:

a) Partzuergoaren datuak

1. Sozietatearen izena
2. IFZ
3. Helbidea
4. Herria
5. Partzuergoaren erabiltzaileei arreta egiteko telefonoa

b) Erabiltzailearen datuak

1. Izen-abizenak edo sozietatearen izena
2. Zerbitzua eskatzen deneko helbidea
3. Herria
4. IFZ
5. Zerbitzua eskatzen deneko jarduera
6. Tarifa

c) Kontagailuaren datuak

1. Kontagailuaren diametroa
2. Kontagailuaren jabetza

d) Ekonomia eta zergei lotutako aipamenak

1. Kontagailua
2. Kontagailuen instalazioa
3. BEZ
4. Aurreko zerbitzuen erregularizazioak

e) Ordaintzeko era

1. Partzuergoaren bulegoa
2. Banku helbideratzea
3. Beste batzuk
4. Zerbitzu kontratua egindako tokia eta data
5. Partzuergoaren ordezkariaren eta erabiltzailearen sinadurak

58. artikulua – Kontrata subrogatzea

1. Kontratuaren titularra hiltzen denean, kausatzailearen onibarraren edo etxebizitza zein lokalaren erabileraren oinordekoa den zeinahi jaraunslek edo legatu hartzailek kontratuaren eskubide eta obligazioen subrogazioa hartu ahalko du, betiere, edozein kontzepturen zioz zorretan diren zenbatekoak aldezturik aurretik likidatzen badira.

2. Subrogazio eskubidea egitatea gertatzen denetik hasita sei hilabete igaro baino lehen gauzatuko da.

59. artikulua – Kontagailu orokorren bidezko kontratuak

1. Kontagailu bakarraren bidez hornitutako higiezin, urbanizazio edo industrialdeetan, horien jabetza eskubide banaezina duten jabekideen erkidegoko kideak erantzule solidarioak izango dira, hornidura dela eta hartutako betebeharrak dagokienez, bai eta hirigintza arloko legerian jasotzen diren hirigintza erakunde laguntzaileak ere.

2. Halako kasuetan, zerbitzua kontratatu ahal izateko, jabekideen erkidegoak. hirigintza erakunde laguntzaileak hornitzen den multzoaren titulartasuna bere gain hartzen duen erakundeak edo zerbitzuaren prestazioaren erantzukizuna kideen partez hartzen duen erakundeak eratuta egon behar du aurretiaz.

3. Partzuergoaren aurreko kudeaketetan, erkidego edo erakunde horien izenean jarduteko, erkidego-erakundeen berariazko baimena beharko da edo, orokorrean, horien legezko ordezkariaren izaera egiaztatzea, erakundeon estatutu eta gainerako arau aplikagarriek ezarritakoaren arabera.

*HIRUGARREN ATALA. BALDINTZA OROKORRAK***60. artikulua – Hornidura motak**

Erabilera zein den, hornidura motak hauek dira:

a) Lehen mailako sareko hornidurak:

Partzuergoko kide diren edo ez diren erakundeentzako hornidurak, ondoko funtzioak kontuan hartzen dituztenak: ur harpena, bilketa, garraioa, tratamendua eta hodi bidez eramatea banaketa sarearen burualdeko andeletaraino. Andel horietatik, bigarren mailako sarearen kudeaketaren eskumena daukanak emango du zerbitzua.

Etxez kanpoko erabiltzaileentzako hornidurak, baldin eta, jardueraren ezaugarriak direla eta, urtean segundoko lau litrotik gorako emariak eskatzen badituzte eta Partzuergoaren saretik zuzenean hornitzen badira.

a) Bigarren mailako sareko hornidurak:

Gainerako hornidurak dira, eta horiek ere, kontsumoaren xedearen arabera, honela sailkatzen dira:

a) Etxeko kontsumoak:

1. Etxeko banakako kontsumoak.

Etxeko banakako kontsumoak izango dira lehen erabilerarako lizentzia eduki behar duten eta bizitegi erabilera daukaten etxebizitza edo esparruetan egindakoak.

2. Auzokideen erkidegoetako etxeko erabilererarako kontsumoak, kontagailu orokorren bidez neurtuak.

Auzokideen erkidegoetako etxeko erabilererarako kontsumoak, kontagailu orokorren bidez neurtuak, izango dira lehen erabilerarako lizentzia eduki behar duten eta bizitegi erabilera daukaten etxebizitza edo esparruetan egindakoak, abonatua etxebizitza bat baino gehiago edo jabeen erkidego bat duen finkaren jabea bada.

3. Hezkuntza arautuko ikastetxe, ospitale eta antzeko zentro, erlijio eraikin, unibertsitate zentro, administrazio publikoen mendeko herritarrentzako arreta bulego, adinekoen eta ikasleen egoitza, koartel, polizia etxea eta antzeko ostatu kolektiboentzako kontsumoak, etxeko ur beroa berotzeko zentraletan.

b) Etxez kanpoko kontsumoak:

1. Nekazaritza eta abeltzaintzako kontsumoak.

1.a. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan (jarduera horretan aritzeko lizentzia dutenentan) egiten diren nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako kontsumoak eta ustiategiaren barruan garatzen diren ostalaritza jardueretarako kontsumoak, azkenen titulartasuna eta aurkeztutako lizentzian ageri dena berdinak badira.

1.b. 500 m²-tik beherako azalera duten familia ustiategiei lotutako nekazaritza erabileretarako kontsumoak.

2. Industria, merkataritza eta obretarako kontsumoak.

2.a. Oro har, industria jardueren erabileretarako kontsumoak.

2.b. Merkataritza erabileretako kontsumoak.

2.c. Ostalaritza eta ostatuko jardueren erabileretarako kontsumoak.

2.d. Oro har, obrak egiteko kontsumoak.

3. Etxez kanpoko beste kontsumo batzuk.

3.a. Lursail pribatuetako lorategiak ureztatu eta igerilekuak betetzeko jardueretarako kontsumoak.

3.b. Udal/kontzejuen erabileretarako kontsumoak, haien bulegoetan, udal erakundeetan eta udal kudeaketako zereginetan aritzen diren enpresa pribatuetan.

3.c. Zehaztu gabeko beste kontsumo batzuk.

3. Kontsumoak sailkatzeari begira, bigarren mailako sareari buruz diharduten aurreko ataletan, ondoko interpretazio arauak aintzat hartuko dira:

Udalen/kontzejuen kontsumorako horniduratzat hartuko dira udala/kontzejua edo haiek partaide diren udala/kontzejua edo kuadrilla titularra duten hornidurak.

Etxebizitza edo esparru horietako batean, aldi berean, bizitegi erabilera eta jarduera bat elkartzen direnean, hornidura osoa jardueraren erabilerarako izango da.

Etxez kanpoko erabileretarako hornidurak izango dira negozio lokalak edo industriak hornitzekoak, haietarako JEZn alta eman behar bada, edo administrazio publiko eta haien erakundeenak, euren erabileragatik beste batzuetan sartuta ez badaude, nahiz eta jarduera horiek merkataritza lokaletan zein etxebizitzarako lokaletan garatu, antolamenduak jarduera gisa erabiltzea baimentzen badu. Halakoak izango dira garaje pribatu, trasteleku eta, oro har, jarduerarik gabeko lokaletarako hornidurak ere.

Obrak egiteko horniduratzat hartuko dira eraikuntzako edo eraberritzeko beharria erantzutekoak eta, oro har, edozein obra mota egitekoak. Halakoak amaitzen direnean, eskatzaileak hargunea kentzeko kontratua azkentzeko eskaria egin beharko du. Hornidura horiek epe mugaturako eta prekarioan eskainiko dira eta beti herritarren beharrei erantzun ondoren.

Lursail pribatuetako lorategiak ureztatzeko eta igerilekuak betetzeko erabileretarako horniduratzat hartuko dira edozein lursail pribatutan xede horretarako erabilitakoak, lursail horretan etxebizitza bat edo etxebizitza multzo bat, industria eta abar sartuta egon zein ez.

61. artikulua. Kontratuaren iraupena

1. Hornidura zerbitzua epe mugagabez kontratatuko da. Hala ere, erabiltzaileak kontratua azkentzeko eskatu ahalko du edozein unetan, betiere eskatzen badu eta eskaera datara arte ordaintzeko dauden kontzeptuen ziozko likidazioa egiten badu.

2. Obra, lokal mugikorretan egiten diren aldi baterako ikuskizun eta noizean behingo jardueretarako hornidurak behin-behinekoak edo aldi baterakoak izango dira.

62. artikulua – Iraupen laburreko kontratuak

Hiru hilabetetik beherako iraupena duten kontratuetan edo –instalazioen aldi baterako izaera edo egoera prekarioa kontuan hartuta– bolumen edo emari finkoa darabiltenetan, edo hornidura erabiltzen den denboran, aurretiaz zehaztutako kantitate jakin bat darabiltenetan, kontsumoen aurretiazko likidazioa ezarri ahalko da, hornidura zer jardueretarako eskatzen den, horniduraren iraupena noiz artekoa den eta aurreikusitako kontsumoa zenbatekoa den.

63. artikulua – Kontratuen bereizketa

Kontratuak hornidura edo zerbitzu mota bakoitzerako emango dira; horrenbestez, baldintza edo tarifa desberdinak aplikatzeko eskatzen dutenei bereizitako kontratuak ematea nahitaezkoa izango da.

2. Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioz, kontratu bakoitza esleituko zaio onartutako erabilerari edo helburuari, eta hornidura ezin izango da beste erabilera batzuetarako baliatu.

64. artikulua – Klausula bereziak

Kontratuek ezin izango dituzte honako ordenantza honetan jaso manuen aurkako klausula berezirik jaso, ez eta ezinbestean aplikatu behar diren arloan indarrean dagoen beste edozein xedapenen aurkakorik ere.

65. artikulua – Suteen aurkako zerbitzuentzako kontratuak

1. Suteen aurkako erabilerarako horniduratzat hartuko dira eraikin, lokal edo esparru jakin batean suteak itzaltzeko instalazioak hornitzeko emandakoak.

2. Suteen aurkako instalazioak beste edozein xedetarako direnetatik guztiz bereizita egongo dira, eta haietatik ezingo da adarrik egokitu beste erabilera baterako.

3. Suteen aurka jarduteko hornidura kontratatzerakoan, Partzuergoak galdatu ahalko du instalazioa kontagailu batez hornitu dadila. Kontagailua ez-intrusiboa izango da, hornidura andel batera egin ezik. Halakoetan, ezaugarri egokiak dituen kontagailua instalatu ahalko da erabilitako kontsumoak zehatz neurtzeko.

4. Era berean, guztiz debekatuta dago instalazio horietatik ura hartzea, suteak itzaltzeko ez bada edo zerbitzu horri lotutako probak egiteko ez bada. Hornidura mota hori instalazioaren aldizkako probetan erabili ahal izateko, Partzuergoak nahitaezko baimena eman beharko du.

5. Suteen aurkako babesari lotutako hornidura kontratatzeko, kontratua formalizatu beharko da aldeztatik Partzuergoaren eta erabiltzailearen artean.

Kontratu horien izapidetzea eta izaera hornidura arruntaren berdina izango dira eta, beraz, haien arauzko baldintza berdinei lotu beharko zaizkie.

66. artikulua – Zerbitzuaren doakotasunaren edo baldintza berezien arauketa

Honako ordenantza honetan ezarritako baldintzei jarraiki, zerbitzua bakar-bakarrik jaso ahalko da doakotasunez edo hobariak baliatuta prestazioa arautzen duen zerga ordenantzak ezartzen dituen baldintzetan.

Ondorio horretarako, zerga ordenantzak gizarte ekintzako prozedura egokiak aintzat hartuko ditu etxeentzat eta/edo familia unitateentzat, haien egoera dela eta, ura kudeatzeko zerbitzuen ziozko ordainketari aurre egiteko zailtasunik dutela eta.

67. artikulua – Kontratua ukatzea

1. Ur hornidura emateko eskumena Partzuergoarena da, indarrean dauden xedapenei jarraiki.

2. Zerbitzuaren kontratazioa ukatu ahalko da ondoko kasuetan:

a) Hornidura eskatzen duen pertsonak edo erakundeak kontratua sinatzeari uko egiten dionean, zerga ordenantzaren arabera bidezkoak diren kontzeptuen ziozko zenbatekoak ordaintzeari uko egiten dionean edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duenean.

b) Eskatzailearen instalazioak arauzko baldintzak betetzen ez dituenean.

Kasu horretan, Partzuergoak instalazioan antzemandako akatsen berri adieraziko dio eskatzaileari, konpon ditzan.

c) Horniduraren eskatzaileak Partzuergoaren zerga ordenantzan jasota dauden zerbitzu emateari doazkion tasen zenbatekoa ordaintzeari utzi diola egiaztatzen denean, tasak ur horniduraren ziozkoak badira edo, bestela, beste etxebizitza, higiezin edo hornidura gune batean isurtzearen ziozkoak badira.

d) Hornidura eskatzen deneko etxebizitzak edo lokalak aurretiaz egindako beste hornidura kontratu bat eginda badauka eta horniduran bajarik eman, likidazioa bideratu eta tasa egokien ordainketa egin ez bada.

68. artikulua – Zerbitzuaren prestazioa eteteko arrazoibidea eta zioak

1. Prestazioa etetea zerbitzuaren jardunbide ona bermatzeko neurria da. Hori horrela, Partzuergoak bere gain dituen administrazio ahalen egikaritzan, ondokoak erabaki ahalko ditu:

a) Ez-betetzeagatiko espedienteari lotutako ebazpena betearazteko helburuz, izaera nagusiz edo osagarritz, prestazioaren harremana azkentzea edo etetea.

b) Ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko behin-behineko neurri gisa, ez-betetzeagatiko espedientea izapidetzen den bitartean.

c) Kautelazko neurri gisa, horrela araututako kasuetan, zehapen espedientei lotutako ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko helburuz.

d) Honako ordenantza honetan edo hura garatzeko arauetan xedatzen den beste zeinahi inguruabarretan, zerbitzuaren jardunbide ona bermatzeko helburuz.

2. Nolanahi ere, Partzuergoak hornidura eten ahalko du izatezko kasu hauetan guztietan:

a) Erabiltzaileak borondatezko epean zerbitzuaren prestazioaren zioz sorturiko tasen zerga zorraren ondoz ondoko hiru (3) likidazio ordaintzen ez dituenean, edo likidazio bakarra ordaintzen ez duenean jakinarazten denetik bederatzi (9) hilabeteko epean. Aurrekoa gorabehera, bereziki aintzat hartuko dira 66. artikuluan jasotako gizarte ekintzako neurrien hartzaile diren erabiltzaileak.

b) Tasen zerga zorraren likidazioaren ziozko zenbatekoak ordaintzen ez direnean, iruzurra egiten deneko kasuetan, jakinarazpena bidaltzen denetik hiru hileko epean.

c) Hornidura kontraturik gabe erabiltzen denetan eta, Partzuergoak horretarako galdatuta, kontratua egiteari uko eginda.

d) Erabiltzaileak kontratazioan jasotako erabileretarako ez, ura beste batzuetarako erabiltzen duenean eta, Partzuergoak horretarako galdatuta, kontratua aldatzeari uko eginda.

e) Erabiltzaileak adarrak egokitzen edo egokitzen uzten duenean kontratazio agirian jasota ez dauden lokal edo etxebizitzetan erabiltzeko.

f) Kontraturik gabeko ur kontsumoa duten adarrak sarean aurkituz gero, Partzuergoak berehalakoan eten ahalko du ur hornidura adar horietan.

g) Erabiltzaileak kontrataturiko hornidurari lotutako lokalean sartzea eragozten dienean Partzuergoak baimendutako langileei irakurketa egin behar dutenean, kontagailua aldatu edo instalazioa ikuskatu behar dutenean, behar bezala identifikaturik badaude, laneko orduetan edo jendaurreko ohiko ordutegiaren barruan. Goian esandako kasuetan, gertaeren akta egin beharko da bi lekukoren aurrean edo agintzaritzako agente barten aurrean.

h) Erabiltzaileak ekipo zuzentzaileen instalazioetan zabarkeriaz jokatzeko duenean, baldin eta, organo eskudunek asaldurak konpontzeko emandako epea igarota, arazoek badiraute hornidura eta saneamendu sareetan.

i) Erabiltzaileak kontagailuaren erregistroa edo kutxatila (edo barruko instalazioa) aldatzeari uko egiten dionean, eragiketak horiek beharrezkoak badira kontagailua ordeztzeko, honako ordenantza honetan araututako zeinahi arrazoi dela kausa, Partzuergoak horretarako ematen dion epearen barruan.

j) Uraren erabileraren edo barruko instalazioen antolaeraren eraginez, hornidurak uraren edangarritasunari eragin ahal badio kutsatuta egon daitezkeen urak itzultzen direlako, harik eta erabiltzaileek neurri egokiak hartzen dituzten arte gertaera saihesteko; halakoetan, Partzuergoak berehalakoan eten ahalko du hornidura.

k) Erabiltzaileak zabarkeriaz jokatzeko duenean bere instalazioetan gertaturiko matxurak konpontzerakoan, baldin eta, Partzuergoak posta ziurtatuz bidalitako jakinarazpena jasotzen duenetik matxura konpondu ez badu hamar eguneko epea igarota.

l) Instalazioak manipulatzeko direnean iruzurra egiteko helburuz.

69. artikulua – Zerbitzuaren prestazioa eteteko prozedura

1. Partzuergoaren organo eskudunak hasaraziko du zerbitzu ematea eteteko espedientea, eta tokiko administrazioei aplikatzen zaizkien prozedurazko arauak jarraiki izapidetuko da.

2. Espedientea hasarazteko egintza erabiltzaileari jakinaraziko zaio, legez ezarritako eran eta bideren bat erabiliz, eta hamar (10) eguneko epea emango zaio egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

3. Alegazioak aztertutik, esandako neurria hartzeko proposamenaren egintza eta oinarriari indarra kendu ezean, organo eskudunak ebatzi egingo du eta interesdunari jakinaraziko dio. Ebazpena betearazlea izango da eta, beraz, une horretatik aurrera eten ahalko da hornidura.

4. Partzuergoak ezin izango du ur hornidura jaiegunetan eten edo, beste edozein arrazoi dela medio, ezingo du eten jendaurreko arreta daukan administrazio zerbitzurik edo zerbitzu teknikorik ez dagoen egunetan, zerbitzua berrezartzeko izapide osoari dagokionez, ezta inguruabar horietakoren bat gertatzen den egunen bezperetan ere.

5. Etenaldia sorrarazi duten arrazoiak emendatu ondotik, zerbitzua egunetan bertan edo, bestela, horniduraren etena sorrarazi duten arrazoiak emendatu diren egunaren hurrengo lanegunetan berrezarriko da.

6. Zerbitzua ez da berriro ezarriko baldin eta, etenaldia sorrarazi duen ekintzaren ondorioz, gastuak sortu eta erabiltzaileak artean ordaindu ez baditu.

70. artikulua – Ez ordaintzearen ondoriozko zerbitzuaren prestazioa eteteko kasuen berezitasunak

1. Honako ordenantza honen 68. artikuluan 2. ataleko a) eta b) apigrafeetan ageri diren etenaldiaren kasuetan, erabiltzaileak likidazioen inguruko administrazio errekurtsioa aurkezten

badu, Partzuergoak ezin izango dio hornidura eten errekurtsua administrazio bidean ebazten ez den artean.

Errekurtsua ebatzitakoan, ebazpenak likidazioa bidezkoa dela iritziz gero, zerbitzua eten ahalko da, eta indarrean dagoen legeriak araututako errekurtsuak jarri ahalko ditu erabiltzaileak.

2. Beste alde batetik, Partzuergoak ezin izango die hornidura eten zorra zatitzeko hitzarmenen bat formalizatu duten bezeroei, azken 30 egunetan ordainketarik egin badute.

3. Udalak edo kontzejuak zordunaren egoera ekonomikoa aztertzeko espediente baten hasarazpenaren izapidetzeari buruzko jakinarazpenik jasotzen bada eta, ordainketa errazteko zorduna laguntza ekonomikoren baten hartzailea izan badaiteke, hornidura eteteko agindua bertan behera geratuko da berehala.

71. artikulua – Berehalako etendura kasuen prozedura

Honako ordenantza honetan berariaz ezarritako inguruabar berezietan den bezainbatean, interes publikoa bermatze aldera, hornidura berehala eteteko neurria hartuko beharko balitz, Partzuergoaren organo eskudunak neurriari eutsi edo bertan behera gera dadin ebazteko prozedura hasarazteko erabakia eman beharko du, gehienez ere, hamabost eguneko epean (68. artikulua 2. ataleko j) eta f) epigrafeak).

72. artikulua. Hornidura kontratua azkentzea

Hornidura kontratua ondoko kausen edozeinengatik azkenduko da:

1. Erabiltzailearen eskariz. Kasu horretan, leskaria egin den egunera arteko likidazioa egingo da eta Partzuergoak kontagailua kendu eta hargunea zigilatuko du. Kontagailua Partzuergoarena bada eta urrunetik irakurtzeko gailu baten hornituta bada, kontagailua eta gailuak hargunean bertan utzi ahalko dira hargunea zigilatu edo itxi ondoren.

2. Aldi baterako kontratuen iraupena amaitu delako.

3. Hornitutako lursaileko okupatzaileek egindako erabilera dela, edo barruko instalazioen baldintzak direla, sarearen segurtasuna edo uraren edangarritasuna arriskuan jarri edo hiru-garrenek kalterik har dezaketelako, betiere egoera konponezina bada eta espediente egokia izapidetu ondoren.

4. Erabiltzaileak hornidura kontratuan ezarritakoak edo bertan jasotako betebeharrak betetzen ez dituelako, espediente egokia izapidetu ondoren.

5. Hornidura kontratatu zeneko lursaila eraitsi, handitu edo eraberritzen delako.

6. Erabiltzailea hiltzen delako, subrogazio kasuetan izan ezean; eta erabiltzailea iraungitzen delako, pertsona juridikoa denean.

7. Erabiltzaileak borondatezko epean zerbitzuaren prestazioaren zioz sorturiko tasen zerga zorraren ondorez ondoko hiru (3) likidazio ordaintzen ez dituelako, edo likidazio bakarra ordaintzen ez duelako jakinarazten zaionetik bederatzi (9) hilabeteko epean eta, oro har, hiru hilabeteko epea igarotzen delako honako ordenantza honen 67. artikulua 2. atalean jasotzen diren zio batengatik zerbitzua eten denetik, erabiltzaileak etenaldia ekarri zuten zioak konpontzeko neurririk hartu ez duela.

Ondorio horietarako, esandako epeak igarotzen badira eta erabiltzaileak ordaintzen ez badu edo neurririk hartzen ez badu, ulertuko da erabiltzaileak uko egiten diola zerbitzuari hartzeari.

8. Ordenantza honetan berariaz ageri diren arrazoiengatik edo, bestela, aplikagarria den beste edozein xedapenetan ageri diren arrazoiengatik.

9. Honako artikulua honen 1. Atalean jasotako kasuan izan ezean, kontratuaren azkentzeak ondorioa izango du Partzuergoak kontagailua kendu duela eta/edo hargunea zigilatu duela bermatzen duenetik.

V. KAPITULUA - IRAKURKETAK ETATASEN ORDAINARAZPENA

73. artikulua – Irakurketaren aldizkakotasuna

1. Kontsumoak kuantifikatzeko helburuz edo, bestela, zerga ordenantzan uraren kontsumoaren zioz edo, hala badagokio, isurtzearen zioz sortzen diren tasei lotutako ordainarazpenak kalkulatzeko helburuz, kontagailuak eta bestelako neurgailuak hilean behin irakurriko dira lehen mailako sareak eskaintzen dituen zerbitzuei eta zerbitzu berekiei dagokienez, eta hogeita hamar (30) eta ehun eta hogeit (120) egunen arteko aldian bigarren mailako sareak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez. Bigarren kasuan, Partzuergoa ahaleginduko da irakurketa hiruhilekoari doitzen.

2. Ekipo mugikorren bidez kontrolatzen diren behin-behineko horniduren emakidak egiten direnean, erabiltzaileak neurtzeko ekipoak eraman beharko ditu Partzuergora, kontratuan ezarritako data edo aldien barruan.

74. artikulua – Irakurtzeko sistemak

1. Kontagailuaren edo bestelako neurgailuaren irakurketa eskuratzeko, Partzuergoak zerbitzua kudeatzeko egokientzat jotzen dituen sistema teknikoak erabili ahalko ditu.

2. Partzuergoko langileek edo Partzuergoak baimendutako langileek irakurriko dituzte kontagailuak, eta kasu guztietan behar bezala identifikaturik egon beharko dira.

3. Partzuergoak ez du erabiliko onarturik eta haren eragin eremuaren barruan egokietsi ez duen irakurketa sistemarik.

75. artikulua – Ordainarazteko kontsumoak zehaztea

Kontsumitu den uraren bolumena ondoko prozeduren bidez kalkulatu da:

1. Ondokoz ondoko bi irakurketen balioen arteko aldea

2. Kontsumoen zenbatespenez, hiruhilekoren batean irakurtzen ez denean edo kontagailuaren datuak eskuraterik ez dagoenean irakurketa Partzuergoko langileen ohiko lan ibilbidearen barruan, kontagailua ibili dabilela emanda.

Zenbatespena egiteko, aurreko bi urteetako aldi berdinean izan diren kontsumoen eguneko batez bestekoa kalkulatu da eta batez besteko hori oraingo aldiak daukan egun kopuruari aplikatu da zaio.

Aurreko lerroaldean azaldu dugun eguneko batez besteko kalkulatzeko datu historikorik ez badago, aurreko aldietan erregistraturiko kontsumoak aintzat hartuta kalkulatu dira.

Zenbatespenaren bidezko fakturazioa konturakoa izango da, eta egoera gehiagoz edo gutxiagoz erregularizatuko da benetako irakurketak eskuratzeko diren hurrengo aldietan, betiere horien preskripzioa gertatzen ez bada.

Hamabi hilabeteko aldian, erabiltzaile baten kontagailua irakurtzea ez badago, inprimaki bat bidaliko zaio, gehienez ere, hiru eguneko epean, Partzuergoari igor diezaion, kontagailuan irakurtzean den balioa eta Partzuergoko langileek kontagailua irakur dezaketean data-orduetan, Partzuergoak hala egokiz joz gero.

3. Kontsumoen ebaluazioz, irakurtzeko unean, kontagailuan anomaliaren bat gertatzen denean, kontagailurik ez dagoela edo indize bakarra dagoela, aurrekoa baliogabea delako.

Ebaluatutako kontsumoaren kalkulua erabiltzailearen kontsumoen araubideak zehaztuko du; hala, kontsumoak egonkorak direnean, zenbatespenaren bidezko prozedura erabiliz fakturatu da; bestela, fakturatu beharreko emaria kontagailu berriak neurtutako balioen arabera kalkulatu da, kontagailua instalatu eta hurrengo 30 egunetan.

Aldi jakin batean, kontagailua egiaztatzen denean, fakturazioa kalkulatu da kontagailua desmuntatu arte erregistratu den emariaren emaitza aintzat hartuta, betiere egiaztapenaren emaitzak kontagailua behar bezala dabilela frogatzen badu.

Ebaluazio bidezko fakturazioa behin betikoa izango da eta, beraz, arinago edo geroago erregistratutako kontsumoek ez diote eragingo.

76. artikulua – Likidazioen erregularizazioa

Errakuntzaz edo kontagailuaren matxuraz behar ez diren zenbatekoak likidatzen badira, erregularizazioa egingo da likidazio akastunen aldia kontuan hartuta, gehienez ere, sei hilabetekoa.

77. artikulua – Ezusteko matxuren ziozko murrizketak

1. Erabiltzaileari egotzi ez eta ohiko kontsumoen balioa desitxuratzen duten ezkutuko matxurak antzematen badira, Partzuergoak ohiko batez besteko kontsumotik gora dagoena fakturatuko du Partzuergoaren ordenantzetan jasotzen diren etxeko erabileren hiruhileko tarifaren bigarren bitartean ezarritako prezioan. Merkataritza, industria eta antzekoen epigrafean ere prezio hori erabiliko da.

Kontagailu orokorren kasuan, lerroalde honetan aipatzen den murrizketa matxura erkidegoaren instalazio orokorrean gertatzen denean bakarrik aplikatuko da.

Honako artikulua honetan jasotako kasuetan, prozedura bat ezarri ahalko da erabiltzaileak ordaintzea izan ditzan ateratzen diren zenbatekoak.

2. Halaber, saneamenduaren zerga oinarria hornidurako ur bolumenaren bidez zehazten den kasuetan ere aplikatuko da.

78. artikulua – Tarifen egitura

1. Zerbitzuen prestazioaren ziozko egitura, osaera, elementuak eta tasen kuantifikazioa, uraren horniduragatik edo, hala badagokio, isurketagatik sortzen direnak, Partzuergoaren zerga ordenantzan agertuko da.

2. Era berean, aipaturiko ordenantza horek zerbitzuen prestazioaren zioz sortzen diren gainerako tasen elementuak arautuko ditu, kontagailuei doazkien heinean: hornidura eta aldaketa, alokairua, muntaketa eta desmuntaketa, kokagunez aldatzea eta gailuak egiaztatzea; harguneak gauzatzea; baita ikuskatzea ere, honeko ordenantza honetan ezarritako baldintzei jarraiki.

79. artikulua – Tasen likidazioen eskakizunak

Partzuergoak ordainarazten dituen tasei aplikagarri zaizkien zerga arloko xedapenek ezartzen dituzten beste eskakizun batzuei kalterik egin gabe, zerbitzuen prestazioaren zioz sortzen diren tasen likidazioak, gutxienez, ondoko elementuak izango ditu:

- a) Likidazioaren zenbakia eta identifikazioa.
- b) Likidazioaren zerga kontzeptua(k) eta hor(r)(i) en lege babesa.
- c) Fakturatutako aldia (zerga aldia).
- d) Kontagailuaren irakurketak, kontagailua irakurri bada.
- e) Kontsumoa edo fakturatu den magnitudea (zerga oinarria).
- f) Kontsumoaren bloke edo bitarteen xehetasuna.
- g) Zenbatekoen xehetasuna, kontzeptuka banakatuta.
- h) Aplikaturiko tarifa(k).
- i) Zerga oinarria, BEZ mota eta kuota.
- j) Ordaindu behar duen subjektu pasiboaren izena.

- k) Zerbitzuaren helbidea.
- l) Partzuergoaren IFK.
- m) Likidazioa aurkaratzeko bideak.
- n) Ordaintzeko tokia, epea eta erak.
- o) Borondatezko epean ordaindu ezean, ordainketa epe exekutiboan egiteko prozedura hasiko dela adierazten duen ohartarazpena.

80. artikulua – Erabiltzailearentzako fakturazioa

Partzuergoak hirugarrenei eskatu ahalko die hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuen erabiltzaileei fakturatzeko, legez ezarritako bideen bitartez. Horretarako, unean-unean indarrean dauden tarifak eta tributuoak ezarriko dira, Partzuergoaren eragin eremuaren barruan, unean-unean indarrean dagoen hornidura eta saneamendu zerbitzuen prestazioari buruzko tasak arautzen dituen zerga ordenantzan ezarritako baldintzetan eta epeetan.

81. artikulua – Ordaintzeko bideak

1. Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuen tasen ondoriozko zerga zorrak honela ordaindu ahal izango dira:

- a) Banku entitate edo aurrezki kutxa batean helbideratuta.
- b) Eskudirutan edo bankuko txeke adostuz, Partzuergoaren bulegoetan.
- c) Partzuergoaren banku kontuan, postazko igorpenez edo dirua sartuz; ordaindu beharreko zerga likidazioa zein den adierazita.
- d) Legez onartutako beste edozein bide erabilita.

2. Partzuergoak eskatu ahal izango du likidazioak eskudiruz ordaindu daitezela, honako kasu hauetan:

- a) Horniduran baja eman delako eskaerei lotutako amaierako likidazioak.
- b) Ordaintzeko borondatezko epetik kanpo ordaintzen diren likidazioak.

82. artikulua – Epe exekutiboan ordaintzea

Zerga ordenantzan ezarritako baldintzei jarraiki, honako ordenantza honetan jasotzen diren zerbitzuen ziozko tasen likidazioak borondatezko epean ordaindu ezean, ordaintzeko epe exekutiboa hasiko da eta likidazioa premiamendu bidez ordainaraziko da.

VI. KAPITULUA - ERREKLAMAZIOAK, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIOA

83. artikulua – Araubide juridikoa eta prozedura

1. Partzuergoak esleituta dauzkan eskumen eta beste funtzio batzuen egikaritzan, honako ordenantza honetan jasotzen diren zerbitzuen prestazioek eta, oro har, erabiltzaileekiko harremanen kudeaketak tokiko administrazioen jardunbidea eta prozedura artezten duten xedapenei men egin beharko diete.

2. Ildo horretan, erabiltzaileek erreklamazioak eta eskaerak egin ahalko dituzte Partzuergoaren organoen aurrean, eta argibideak esaktu ahalko dituzte aipaturiko xedapenetan ezarritako baldintzetan.

84. artikulua – Organo eskumendunak

Ordenantza honetan xedatzen denari jarraiki, Partzuergoak eman beharreko ebazpenak presidentearen eskumenekoak izango dira, eskumen hori beste organo bati berariaz esleitzen zaionean izan ezean.

85. artikulua – Errekurtsoen araubidea

1. Presidenteak emandako egintzek eta, oro har, Partzuergoaren organoek emandakoek administrazio bideari amaiera ematen diote eta horien aurrean, aukeran, berraztertzeko errekurtsua aurketu ahalko da egintzok eman dituen organoaren aurrean; bestela zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

2. Aukerako berraztertzeko errekurtsoren eta bidezkoak diren gainerako errekurtsoren araubide juridikoa, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko Legeak ezarritakoa izango da.

3. Arau orokor gisa, errekurtsuak jartzeak ez du etengo aurkaratutako ebazpenaren beteazpena, neurri hori legez bidezkoa den kasuetan izan ezik edo Partzuergoak neurria behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik; halakoetan, kautelazko neurriak ezarri ahalko ditu, hala badagokio.

4. Ordenantza honek jasotzen dituen zerbitzuengatik sortutako tasen aplikazioari eta eraginkortasunari dagozkien prozedurei aplikatu ahalko zaie zerga arloko xedapenetan ezarritako errekurtsoren araubidea, betiere zerga ordenantzan ezarritako baldintzei jarraituz.

86. artikulua – Errekurtsoen ordezkio prozedura

Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, Partzuergoa administrazioaren xedapenetara egokituko da, horiek aplikagarri izango zaizkion neurrian, bai modu subjektiboan, bai ordenantza honen xedearen eremuari eragiten dionaren aldetik; horiek horrela, aukerako berraztertze errekurtsua bestelako prozeduren ordezkio aldatu ahalko da, hala nola aurkaratze prozeduren ordezkio, erreklamazioaren ordezkio, adiskidetzaren ordezkio eta arbitrajearen ordezkio, bai kide anitzeko organoen aurrean, bai jarraibide hierarkikorik ez duten batzorde zehatzen aurrean.

87. artikulua – Jurisdikzio eskuduna

Ordenantza honek jasotzen duen zerbitzuari lotutako harremanaren ondorioz, Partzuergoaren eta erabiltzaileen artean sor daitezkeen auzien ezagutza administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren organoetara egokituko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Honako ordenantza hau indarrean hasten den unetik, indargabeturik geratuko dira Partzuergoak ematen duen hornidura zerbitzuaren prestazioa arautzen duten ordenantza guztiak.